

# HITANOAREN HASTAPENAK HAURRETAN GRADU AMAIERAKO LANA

**EGILEA: AIORA EIZMENDI OTAEGI**

**GRADUA: LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**ZUZENDARIA: GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA**

**URTEA: 2021/22 IKASTURTEA**

# AURKIBIDEA

|        |                                                                     |    |
|--------|---------------------------------------------------------------------|----|
| 1.     | MARKO TEORIKOA .....                                                | 4  |
| 1.1.   | HITANOA: erabileran eragiten duten faktoreak eta konnotazioak ..... | 4  |
| 1.1.1. | Konnotazio negatiboak .....                                         | 5  |
| 1.2.   | Generoaren eragina.....                                             | 6  |
| 1.3.   | Hitanoaren transmisioa haurren ingurunean .....                     | 9  |
| 1.3.1. | Familia eta hezkuntza .....                                         | 9  |
| 1.3.2. | Transmisioa.....                                                    | 11 |
| 1.3.3. | Haurrek hika egin dezaten esku hartzeak .....                       | 13 |
| 2.     | METODOLOGIA.....                                                    | 16 |
| 2.1.   | TESTUINGURUA .....                                                  | 16 |
| 2.2.   | HELBURUAK ETA IKERKETA-GALDERAK.....                                | 16 |
| 2.3.   | DATUAK BILTZEKO TRESNAK.....                                        | 17 |
| 2.3.1. | Behaketa.....                                                       | 17 |
| 2.3.2. | ELKARRIZKETA.....                                                   | 19 |
| 2.3.3. | GALDETEGIA .....                                                    | 19 |
| 2.4.   | PARTE-HARTZAILEAK.....                                              | 22 |
| 2.5.   | DATUAK BILDU ETA AZTERTZEA.....                                     | 22 |
| 3.     | EMAITZAK .....                                                      | 26 |
| 4.     | EZTABAIDA ETA ONDORIOAK.....                                        | 37 |
| 5.     | BIBLIOGRAFIA .....                                                  | 43 |
| 6.     | ERANSKINAK .....                                                    | 46 |
| 6.1.   | ELKARRIZKETA IKASLEAK.....                                          | 46 |
| 6.2.   | GALDETEGIAK .....                                                   | 48 |
| 6.2.1. | Gurasoentzako galdetegia .....                                      | 48 |
| 6.2.2. | Irakasleentzako galdetegia .....                                    | 54 |

**Laburpena.** Urteak aurrera egin ahala hitanoa gero eta gutxiago erabiltzen da eta aurrerantzean ere bide beretik jarraitzeko joera erakusten du. Kezka horretatik abiatuta, Gipuzkoa erdigunean kokaturiko herri txiki bat oinarri hartuz, lan honen helburua haurretan hitanoaren hastapenaren ezaugarriak zein diren eta horretan generoak eta haurren inguruko pertsona erreferenteek zer eragin duten ezagutzea da. Horretarako, eskola txiki bateko kideen laguntzarekin, behaketa, elkarriketa nahiz galdetegi bidez informazioa jaso da. Bildutakoarekin, hitanoaren ezaugarri tradizionalak mantentzen direla ikusi da, tratamendu hori batez ere genero maskulinoarekin lotzen jarraitzen baita, haurren artean mutiletan hitanoa asko entzuten den bitartean nesketan ia ez baita entzuten.

**Gako-hitzak:** hitanoa, hastapenak, haurrak, transmisioa, hezkuntza, generoa.

**Resumen.** Con el paso de los años el “hitano” se utiliza cada vez menos y muestra una tendencia a seguir por el mismo camino. Partiendo de esta preocupación, se ha realizado este trabajo basado en un pequeño pueblo situado en el centro de Guipúzcoa con el objetivo de conocer cuáles son las características de la iniciación del “hitano” en los niños y cómo influyen en ello el género y las personas referentes del entorno infantil. Para ello, con la ayuda de los miembros de una escuela, se ha recogido información a través de observaciones, entrevistas y cuestionarios. Con el material recopilado, se ha observado que se mantienen las características tradicionales del “hitano”, ya que este tratamiento se sigue asociando sobre todo al género masculino, siendo muy habitual su uso entre los niños mientras que entre las niñas apenas se utiliza.

**Palabras clave:** “hitano”, iniciación, infancia, transmisión, educación, género.

**Abstract.** As the years progress, the use of the “hitano” decreases, and this tendency continues down the same path. Based on this concern, in a small town in the center of Gipuzkoa, the aim of this work is to know what are the characteristics of the beginnings of “hitano” in children, and how the gender and said people around them influence it. To this end, with the assistance of members of a small school, information has been collected through observations, interviews and questionnaires. With the collected information, it has been observed that the traditional characteristics of the “hitano” are maintained, since the use continues to be associated primarily with the male gender, and used more within boys the “hitano”, whereas girls rarely use it.

**Key words:** “hitano”, beginnings, children, transmission, education, gender.

# 1. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, hitanoaren eta hitanoa eta haurren arteko loturaren informazioa aurkituko da. Hasteko hitanoaren erabileran eragiten duten faktoreak nahiz egotzi izan zaizkion konnotazio negatiboak zeintzuk izan diren azalduko da. Ondoren generoak duen eragina aztertuko da eta, azkenik, haurren ingurunean dagoen hitanoaren transmisioaren gaiari helduko zaio.

## 1.1. HITANOA: ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK ETA KONNOTAZIOAK

Hasteko, zer da hitanoa? Euskararen barneko tratamendu bat da, hikako tratamendua edo hizkera. Definizio zehatzago bati erreparatzen badiogu, ordea, Arluxet Hiztegi Entziklopedikoak (<http://www1.euskadi.net/harluxet/>) honakoa esaten digu: “*Hi* izenordainaren erabileran oinarri duen lagunarteko tratamendua. Hi bigarren pertsona aditzaren *nor*, *nork* edo *nori* kasua denean dagokion adizkia erabiltzen da, eta *Hi* pertsona aditzari dagokion ekintzen partaide ez denean, dagozkion forma alokutiboak erabili behar dira”.

Esan dezakegu hitanoa euskaraz modu informalean mintzatzeko erabiltzen dugun tratamendua dela, eremu formaletarako baino gehiago lagunarterako eta testuinguru informaletarako erabili ohi dena.

Euskaraz, bi pertsonen arteko elkarrizketa batean erabili daitezkeen tratamendu bat baino gehiago daude. Aipaturiko hitanoaz gain, ZUKA eta BERORIKA tratamenduak ditugu, eta horietako bakoitza erabilera-eremu bati lotuta dago. Hiruren artean gaur egun gehien erabilia dena ZUKAko tratamendua da, kortesiazkoa. BERORIKAKo tratamendua, berriz, begirunea adierazteko erabiltzen zen errespetuzko tratamendua da. Eta azkenik hitanoa, lagunarteko eremuan erabiltzen da (Bereziartua eta Muguruza, 2021).

Inguruko beste zenbait hizkuntzatan gertatzen den moduan, tratamendu hauen erabilera argitzeko gizarte-bizitzako jokabideak arautzen dituzten bi printzipio hartu dira kontuan: boterea eta elkartasuna. Botere harremana sorrarazten duten aldagaiak indarra, aberastasuna, adina, sexua, lanbidea eta kargua nahiz gizarte-posizioa izan daitezke. Kasu horietan, asimetria gertatuko da, izan ere, nagusitasuna duena, gertutasunezko tratamenduan (T) zuzenduko zaio azpikoari, aldiz bueltan, adeitasunezko tratamendua (V) jasoko da. Elkartasunezko harremanean berriz ez da asimetriarik gertatuko, antzeko pentsamolde edo jokabideak izateak, hala nola familia, erlijioa, lanbidea, sexua, jaioterria edota kideza politikoa, tratamendu simetrikoa izatea

ekarriko baitu (Brown eta Gilman, 1960, hemen aipatua: Bereziartua eta Muguruza, 2021: 323. or.).

Aipaturiko botere eta elkartasun harremanez gain, hizkuntza batean tratamendu bat edo beste bat erabiltzeko aukeraketa egitera bultzatzen gaituzten beste hainbat arrazoi egon ohi dira. Alberdi-Larizgoitiak (1993), hitanoaren erabilera baldintzatzen duten 10 aldagai soziolinguistiko zerrendatu zituen. Hiketarako garrantzitsuenen artean, adina, belaunaldia, generoa, kidesasuna eta elkartasun psikologikoa aipatu zituen, aldiz bigarren mailan, gaia, testuingurua, senidetasun maila, dialektoa eta aginpidea kokatu zituen.

Askotan ez da aldagai bat bakarra erregistro bat edo beste bat erabili erabakitzerakoan esku hartzen duena, baizik eta bat baino gehiagoren elkarketa. Esate baterako adiskidetasuna izatea soilik agian ez da nahikoa hitanoa erabiltzeko, posible baita lagun min batekin hitz egiteko zutanoa erabiltzea eta aldiz beste zenbaitekin hitanoa erabiltzea. Hori, Alberdi-Larizgoitiak (1994) esan bezala, ohiturarekin lotuta dago, izan ere askotan legea “harremana nola hasi, hala segi” izan ohi da.

Gaur egungo ohituraren arabera, hika edota zuka tratamenduen artean ez dago zalantzarik zuka erabilia errazago asmatuko dela. Alberdi-Larizgoitiaren (1993) esanetan, errealitate honek hitanoaren zabalkuntzaren aurka egiten du, zalantza kasuan zukara jotzen baita, horrela, harreman gehienetan zutanoa ateraz garaile.

### 1.1.1. KONNOTAZIO NEGATIBOAK

Alberdi-Larizgoitiak (1993) azaldutakoaz gain, hitanoak izan ditzakeen konnotazio negatiboek ere eragin zuzena dute tratamendu honen erabileran. Esate baterako, konnotazio negatiboak direla eta etxe askotako hitanoaren transmisioa nahita eten da (Muguruza eta Bereziartua, 2020). Ugari dira hitanoak dituen konnotazio negatiboak, horien artean bakar batzuk aipatzeko, baserritar hizkera eta zakartasuna.

Hitanoa baserriko hizkeratzat hartu izan da leku askotan, eta nahiz eta ezaugarri horrek berez ez izan ezer negatiborik, baserritarrak maiz zakar eta inozotzat hartuak izan direnez, hitanoarekiko erlazio honetan irudi oker bat sor daiteke. Arazoa, ordea, ez da aipaturiko ezaugarri horiekin lotzearekin soilik etortzen, izan ere hitanoaren erabilera baserri girora soilik mugatuz gero, ingurune hori jasaten ari den beherakadarekin batera hitanoak ere bide beretik jarraituko du (Alberdi-Zumeta, 2019).

Baserritartasuna aipatzean, ordea, maskulinitatearekin lotzen da, izan ere, baserriko emakumeen lan inguruetan, merkatuan esaterako, hitanoak ez du presentzia handirik (Legorburu, 2018). Erdi Arotik hasita nokak izandako bidea aztertuz gero, nokari zentzu negatiboa ematen zaiola ikusten da, esate baterako sorginekin lotuz. Irudi negatibo horren zantzuak gaur egun ere nabariak direla esan daiteke, esate baterako neska askok hika “bastoa” denaren pertzepzioa baitute (Ozaita, 2014). Nahiz eta gaur egun gauzak aldatzen ari diren, oraindik ere gizartearen ustetan emakumeek zuzenak eta finak izan behar dute, beraz, hitanoak duen zakartasun puntu hori ez dator bat emakumeei eskatzen zaienarekin. Gizartean ezarri diren genero rolek nokaren galeran eragin nabaria izan dute, izan ere aipaturiko baserritartasuna eta zakartasuna ez dira bat etortzen feminitatearekin eta ondorioz hitanoa ez da emakumeentzat tratamendu egokitzat ikusi izan (Alberdi-Zumeta, 2019).

Gauzak horrela, hitanoa emakumeek edo gizonek erabili, esanahi ezberdinak izatera iritsi da. Gizonen kasuan, konfiantzarekin lotzen den bezala, emakumeen kasuan zabarkeriarekin lotu izan da maiz, beraz, bereziki emakumeek hika egitea gaizki ikusita egon izan da (Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020).

## 1.2. GENEROAREN ERAGINA

Hitanoa erabiltzen dugunean, hitzunak solaskidearen generoa kontuan izatea eskatzen du tratamendu honek. Emakume bati noka zuzentzen gatzazkionean “jan ezan gehiago” erabiliko dugu, aldiz gizonezko bati toka ari gatzazkionean “jan ezak gehiago” erabiliko dugu, hau da, zuzentzen ari garen pertsonaren generoaren arabera, aditzari marka ezberdina jartzen diogu (Barquin, 2008).

Elkarrizketak ordea, ez dira beti bi pertsonaren artekoak soilik izaten, maiz, taldean hitz egiten dugu, beraz kasu hauetan arazoak sortzen dira, hitanoa ez baita talderako prestatutako erregistroa. Guztiak genero berekoak badira ez dago arazorik, emakumeen kasuan noka eta gizonen kasuan toka, baina bietatik badaude, nola hitz egin behar dugu? Barquin-ek (2008) adierazten duenaren arabera, kasu horietan maiz desegoki erabiltzen da hitanoa, izan ere genero nahasketa dagoen kasuan, atzizki maskulinoak erabiltzen dira ahoz naiz idatziz.

Horren alternatiba modura, hainbat proposamen egiten ditu Barquin-ek (2008). Alde batetik zutanoaren erabilera, entzulearen generorik ez baitu kontuan hartzen erregistro honek. Beste aldetik, inperatiboa erabiltzea gomendatzen du, adibidez, “jan ezan gehiago esan beharrean “jan gehiago” erabiltzea. Azkenik, aukera aitzindari modura hitanoko femenino eta maskulino atzizkiak elkartzea aipatzen du, “jan ezan<sup>nk</sup> gehiago” erabilia. Azken hori, Antton Olariagaren

“Zakilixut” komikian (<https://www.berria.eus/zintak/>) ikusi izan dugu, baita telebista programen izenburuetan ere, horren adibide “Wazemank” programa.

Izan taldean, binakako elkarrizketetan edota edozein testuingurutan, ikerketa ezberdinek agerian uzten dute tokaren erabilerarekin alderatuta nokak beherakada nabaria izan duela. Ozaitak (2014) dio gazteen eremuan noka ia ofizialki desagertu egin dela. Ildo horri jarraiki, Beitiak (2017) Eskoriatzan buruturiko ikerketan ere gazteen artean erabiltzaile bakarrak mutilak direla ikusi zuen, neskek ez dute erabiltzen hitanoa ez euren artean ezta mutilei zuzentzeko ere. Horrez gain, mutilek ere noka hitz egiteko zailtasunak dituztela agerian utzi zuen. Legorburuk (2018) ere antzerakoa ikusi zuen Antzuolan. Toka nokarekin alderatuta gehiago entzuten da kalean eta azken hori, batez ere 60 urtetik gorako emakumeen eta gizonezko batzuen ahotan besterik ez da entzuten.

Gizonezkoek toka eremu publikoan mantendu dute, eta hori oso garrantzitsua izan da hitanoari eusterako garaian, izan ere, kaleetan presentzia izateak mutil gazteek tokarako jauzia egitea ahalbidetzen du (Legorburu, 2018). Emakumeentzat ordea, hitanoa erabiltzen hastea ez da batere erraza. Alberdi-Zumetak (2019) azaldu zuenez, neskek hitanoa erabiltzen hastean askotan bota dute faltan batetik inguruaren babesa eta bestetik ingurune hikatzailea izatea. Hori dela eta, hitanorako jauzia ematea zailagoa da eurentzat, eta nahiz eta saiatzen diren, askotan bertan behera geratzen da ez dutelako norekin praktikatu.

Orokorrean nokaren galera emakumeen gain erortzen da, baina ez da ahaztu behar noka ez dela emakumezkoena soilik, emakumeei zuzentzeko erabiltzen dena, baizik. Beraz, nokaren beherakadaz hitz egitean, ez da ahaztu behar gizonezkoak ere badirela noka hitz egiteari utzi diotenak (Legorburu, 2018).

Muguruzak, Bereziartuak eta Etxeberriak (2020) azaldu zuten nokaren beherakada aspalditik datorren kontua dela. Alde batetik, hitanoa bat-batekotasuna, konfiantza eta umorea bezalako ezaugarriekin lotzen da eta horiek, genero maskulinoari lotuago daudela uste izan da; gainera, hitanoa euskaldun petoarekin lotu izan ohi dugu eta irudi hori orokorrean gizonezkoarena izaten da.

Bestalde, prestigioaren kontua ere hor dago. XX. mendean emakume euskaldun asko, baserriko bizimodua utzi eta hirira joan behar izan ziren neskame edota zerbitzari lanetara. Emakumeek zuten posizioak, ez zien hitanoaren erabilerarako aukera handirik ematen, baina horrez gain, itxura zaintzeko berehala baztertzen zuten prestigio eta ospe txarra zuen hitanoa. Aldiz, gizonezkoak fabriketara joaten zirenean inguruan zituzten kideak euren parekoak ziren, beraz

hitanoaren erabilera mantentzea askoz errazagoa zen genero maskulinoarentzat (Echeverria, 2003, hemen aipatua: Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020). Alberdi-Zumetak (2019, 148 or.) honela adierazi zuen:

Genero arauak eragin zuzena izan dute tokaren indartzean eta nokaren galeran. Izan ere, modernitatearen garaian noka emakumearekin batera etxean giltzapetuta eta hirietako kaleetan galduta gelditu zen. Tokak, berriz, ez zuen etxe giroko ahalmenik galdu eta, gainera, indarra hartu zuen lantegietan eta kalean.

Nokaren beherakadarekin lotuta, Azkueren (2009) lanean bildutako hainbat adituren hitzak aipatuko ditugu, zehazki esanda, Pello Etxaniezen eta Gontzal Fontanedaren hitzak. Pello Etxanizek honakoa dio:

Noka da aurrena galdu den erabilera, eta tokak behin-behineko oreka lortu duela dirudi hainbat eskualdetan, askoz galera mantsoagoa duelarik, zaharrek gazteei eta sexu berekoen artean gehiago mantendu da sexu ezberdinen artean baino. [...] Euskararen etorkizunean ezalokutiboaren nagusitzea iragar daiteke, baita gaur egun alokutiboa mantentzen den esparruetan ere. Norabide horretan dago, bederen. Epe motzera nokaren desagertzea, epe luzera tokarena. (Etxaniz, 2001, hemen aipatua: Azkue, 2009, 27. or.)

Gontzal Fontanadak, bere esperientziatik honakoa esaten du:

Oso leku gutxitan mintzatzen da hika; toka, hobeki esateko, noketa herri gehienetan ia-ia galduta dagoelako. Lagun nafar eta giputz batzuei esker hika egiten ikasita, herriz herri ibili nintzen garai hartan, duela berrogei urte, eta mutilen artean, baita nesken artean ere, bizirik zegoen hitanoa herrietan, ahul baina bizirik. Aurten berriro eskualde berean izan naiz eta oraingo egoera larria egiaztatu dut: hika askoz gutxiago egiten dela, eta batez ere, nesken artean ez dela herri askotan erabiltzen, atzerakada izugarria jasan duela. (Fontaneda, 2008, hemen aipatua: Azkue, 2009, 28. or.)

Aurreko bi paragrafoetan irakurritakoak alderatzen baditugu, biek antzeko norabidea erakusten dutela esan daiteke, izan ere, arrazoiak bat edo bestea izan, guztietan hitanoa eta batez ere noka jasaten ari den beherakada azpimarratzen dute.

Nokaren desagertzearekin lotuta Beitiak (2017) etorkizunerako bi egoera aurreikusten ditu. Batetik, hitanoaren erabilera guztietan toka erabiltzea, bai neskak euren artean, bai eta neska-mutil elkarrizketetan ere. Bestetik, emakumeak toka egiten hasten ez diren kasuan, hitanoa maskulinitatearekin gero eta gehiago lotzea, hau da, gaur egun nagusiki mutilei lotutako tratamendua bada, emakumezkoek hitanoa erabiltzeari erabat utziz gero zer esanik ez.



Beitiaren (2017) esanetan, hika hitz egitean zailtasun handienetako bat nokaren ezagutza falta da, beraz, askotan errazagoa egiten zaie toka nokarekin alderatuta. Eskoriatzan (Beitia, 2017) elkarrizketa guztietan toka erabiltzeko ideia agertzen hasi da, zenbait mutilek, neskekin hika hitz egin behar luketen kasuan toka erabiliko luketela jaso baita. Antzekoa gertatzen da Tolosaldean ere, neskak toka erabiltzen hasiak baitira (Ozaita, 2014).

Honekin lotuta, beste eztabaida bat sortu da zenbait ikerketatan: hitanoa mantentzeak merezi duen edo ez. Alberdi-Zumetak (2019, 146. or.) honela esan zuen: “hitanoak ez du bat egiten gaur egungo aurrerapenekin eta mundu ikuskerarekin, nolabait zaharkituta gelditu da”. Beraz zer egin, berreskuratzeko ahaleginean jarraitu edota galtzen utzi?

Ozaitaren (2014) lanak erakutsi zuenez ere gazteen artean bi ikuspegi nabaritzen dira: alde batetik generoa bereiztean ezer txarrik ikusten ez dutenak; bestetik, genero bereizketa hitanoarentzat oztopo gisa ikusten dutenak. Legorbururen (2018) ikerketak ere ildo horretako ideiak azaleratu zituen. Bertan aipatzen denez, gaur egungo gizartean dagoen aniztasunari begira, hitanoak hizkera binarioa izanik, hartzaillearen generoa bi kategoriatan sailkatzea eskatzen du, neska edo mutil, eta multzo horietan kokatzen ez diren pertsonentzat ez litzateke baliagarria izango. Beraz zer egin? Atal hau aztertzeak luze joko luke, eta nahiz eta hitanoaren hastapenetan eragina izan dezakeen, gure ikerketa gai honi estuki lotuta ez dagoenez, auzi hau alde batera utzi eta generoaren gaiarekin amaitzeko haurretan zentratuko gara.

Esku artean dugun lanaren fokua haurrengan jarri dugula kontuan hartua, hitanoa, generoa eta haurrak lotzen baditugu, jakina da haur askok hitanoarekin duen harreman urria telebistan ikusten duenarekin lotuta dagoela, zehazki esanda marrazki bizidunekin, izan ere gero eta gutxiago dira hitanoa kalean maiz entzuten den herriak. Gainera, aipaturiko programa horietako pertsonaia gehienak maskulinoak dira, beraz entzun eta barneratzen dituzten hitanoko zantzu apurrak genero maskulinoari lotutakoak dira (Barquin, 2009).

### **1.3. HITANOAREN TRANSMISIOA HAURREN INGURUNEAN**

Azpiatal honetan, hurrek hitanoarekin duten harremana azalduko da. Horretarako lehendabizi haurren ingurune nagusi diren familian eta hezkuntzan hitanoak duen presentzia ikusi ondoren, transmisioaren gaiari helduko diogu. Eta azkenik, haurrengan hika sustatu asmoz eginiko zenbait esku-hartze aipatuko dira.

#### **1.3.1. FAMILIA ETA HEZKUNTZA**

Urteetan zehar hitanoaren arauak esan izan dutenaren arabera, seme-alabek ezin izan diete familiako kide diren helduagoei hika egin. Arauetatik harago, gazteen pertzepzioaren arabera gurasoek errespetu faltatzat hartzen dute eurei hika zuzentzea, beraz, komunikatzeko ez da hitanoa erabiltzen (Alberdi-Zumeta, 2019). Hala ere, aipatu beharra dago badirela salbuespenak, izan ere, badira seme-alabak eurekin hika egitera bultzatzen dituzten guraso gutxi batzuk.

Muguruzak eta Bereziartuak (2020) Azpeitian eginiko ikerketan ondorioztatu zutenez, seme-alaben generoak eragina du gurasoek seme-alabei hika egin edo ez erabakitzeko garaian. Gaur egungo gurasoek, izan emakumezkoak zein gizonezkoak, semeei gehiago egiten diete hika alabei baino. Zehatzago izanda, alabei hika egiten dieten amen eta aiten kopurua antzekoa da, aldiz semeei hika egiten dietenen kopuruan alde nabaria dago, semeei hika zuzentzen diren ama kopuruaren bikoitza baino gehiago baita aita kopurua.

Horrekin ikusten da, familian ere hitanoaren erabileran genero maskulinoa dela garailea, izan ere, gizonezko guraso gehiagok erabiltzen dute tratamendu hau emakumezkoekin alderatuta eta semeek ere hitano gehiago entzuten dute alabekin alderatuta (Muguruza eta Bereziartua, 2020).

Familian bezala, eskola eremuan ere gizon eta emakumeek hitanoan egiten duten eta egin izan duten erabileran alde nabarmena dago. Antzuolan egindako ikerketan, emakumeek adierazi dute eskolan behin ere ez dutela hika erabili, aldiz gizonek eskolan hika hitz egin izan dutela diote (Legorburu, 2018). Legorburuk (2018, 119. or.) hezkuntza esparruko alde hau genero rolekin lotzen du: “Jakinek da, gaur egun hezkuntza sistemaren baitan -EAEn- euskaraz hitz egitea dela araua [...] neskek arau hori defendatu eta betetzen duten bitartean, mutilek eta mutil gisa jokatzuz [...] araua apurtuko dute. Beraien genero identitatea arau apurketa horretan indartuz”.

Garai ezberdinetako hezkuntza arauak kontuan izanik, genero rolek eragin nabaria izan dute arauak errespetatu edota horien aurka joateko. Horrela, neskek arauak errespetatu izan dituzten bitartean, mutilek arauak puskatzen dituzte mutil jarrera indartuz (Legorburu, 2018).

Ikasleek ikastetxean eginiko hiketaren erabileraz gain, hezkuntzan hitanoak presentzia urria du. Tolosaldeko gazteak hezkuntzan hitanoari ematen zaion tratamenduari dagokionean nahiko kritikoak dira, izan ere guztiak bat datoz garrantzi handiegirik gabe eta oso denbora murriztean lantzen dela (Ozaita, 2014). Horrez gain, edukiz kanpo mutilei irakasle ugari tokia egin dien bitartean, neskei oso irakasle gutxi zuzendu zaizkie noka, eta horrek ere bide berdinetik

jarraitzen du, izan ere nahiz eta egoera hau salatu, gaur egungo gazteek hurrekin gauza bera egiten dutela aitortu dute (Alberdi-Zumeta, 2019). Esandakoekin lotuta, hitanoak hezkuntzan duen lekuari buruz honakoa dio Ozaitak (2014, 87 or.):

Hitanoa bezalako arlo bat irakasteko bestelako bideak jorratu beharko lirateke. Azken finean, euskara batuak hartzen du hezkuntzako zentralitate guztia: idazlanak euskara batuan egitea, EGA prestatzea... baina informaltasunaren eremua ez da batere lantzen. Irakasleen aldetik ere gehienek ez dute gogo berezirik ikusi berau lantzeko (agian beraiei ere arrotz zaielako).

### 1.3.2. TRANSMISIOA

Haurren ingurune nagusi diren familia eta hezkuntza eremuetako hitanoaren presentzia ezagututa, hitanoaren transmisioa non eta nola gertatzen den ikusiko dugu.

Tradizioz, haurrak jaiotzen direnean ez zaie hika egin izan. Txikiak direnean, adin jakin batera iritsi arte, normalean zuka mintzatzen zaizkie Euskal Herriko toki askotan. Gaiztakeriatan hasten direnean, hau da, koskortzen direnean aldatzen dute gurasoek tratamendua, 6-10 urte bitartean (Alberdi-Larizgoitia, 1993). Familiako beste kideei dagokienean ordea erabilerari urriagoa izan ohi da, esaterako aitona-amona eta izeba osaben kasua. Anai-arrebei dagokienean, hika aritzea da ohikoena adinean desberdintasun handirik ez badago. Azken urteetan ordea, eremu pribatuko hitanoaren transmisio bertikalak beherakada jasan du eta gehienek hitanoa etxean jaso edota entzuten dutela pentsatu arren, Alberdi-Zumetak (2019) Azpeitian eginiko ikerketa batean ondorioztatu zuen ez zela beti transmisioaren eredu tradizionala gailentzen.

Beti pentsatu izan dugu etxeko transmisio bertikala beharrezkoa dela hika ezagutu eta erabili ahal izateko, izan ere transmisioaz hitz egitean, haurrak pasibotzat jo izan dira, hartzaile soil gisa (Muguruza eta Bereziartua, 2020). Baina esan bezala, haurrek hizkuntza beste haurrengandik ere ikasten dute, horixe ikusi zuen Alberdi-Zumetak (2019) bere ikerketan, izan ere hika etxean jaso ez zutenen artean, baziren hitanoa erabiltzen zutenak, zehazki esanda toka. Beraz, ez da derrigorra transmisioa modu bertikalean jasotzea, pertsonak dituzten nahiek eta familiaz kanpoko harremanek ere zerikusia izango baitute hizkuntza hautuetan eta ondorioz hitanoaren erabileran (Legorburu, 2018).

Hori ordea ez da leku guztietako errealitatea, hitanoa horren presente ez dagoen herrietan ez baita hain erraza transmisioa horizontala lortzea. Zenbait herritan, batez ere handietan, kaleko transmisioa urria da, hitanoak apenas du presentziarik. Hori da hain zuzen ere Ozaitak (2014) Tolosaldean ondorioztatu zuena. Zenbait herritako gazteei (batez ere herri handietakoei)

hikaren mundua oso arrotza egiten zaie, hezkuntzan landutako aditz taulatatik harago ez baitute tratamendu hau praktikoki ezagutzeko aukerarik izan. Hori horrela, inguruko herrietako hitano hiltun gazteekin elkarrekintzak izan arte hikaren mundua ezezaguna egiten zaie. Kasu horietan, aipaturiko haurtzaroko garaia atzean geratzen zaie gazteei, baina Beitiak (2017) esan bezala, hizkuntzaren sozializazio prozesuak bizitza osoan zehar dirauenez, adinean aurrera egin ondoren ere ez da berandu hitanoaren munduan sartzeko, Ozaitak (2014) eginiko ikerketan ere argi ikusten den moduan.

Haurtzarotik gaztarorako jauzian aldaketa nabariak ematen dira hizkuntzari dagokionean. Legorburuk (2018) Antzuolan eginiko ikerketan ondorioztatu zuen bertako mutil gazteen artean hikarako jauzia etapa honetan ematen dela, “gizontze” prozesu bat bailitzan. Etapa honetan hasten dira gazteak sozializatzen, aisialdi ohiturak aldatzen dituzte eta inguruko gazteekin elkartu eta helduagoekin harremanak izaten hasten dira eta hitanorako transmisioa egiten dute. Legorburuk (2018) dioen bezala, badirudi mutil gazteentzako toka, nolabaiteko helduarorako giltza bat bezala litzatekeela.

Ingurunea da hitanoaren transmisioan eragin zuzena daukan aldagaietako bat. Azpeitian (Alberdi-Zumeta, 2019), Tolosaldean (Ozaita, 2014) edota Antzuolan (Legorburu, 2018) egindako ikerketek erakutsi dutenez, kaleetan hitanoaren presentzia altua izateak garrantzi handia dauka hitanoaren transmisiorako.

Modu batera edo bestera, izan lehenago edo beranduago, orokorrean modu horizontalean hasten dira egungo gazteak hitanoarekin esperimentatzen, hori bai, neska eta mutilei dagokienean oso ezberdina da hasiera. Ozaitak (2014) bi ibilbide mota aipatzen dizkigu: alde batetik, A ibilbidea, naturala dena, hitanoa ezagutu eta esperimentatzera daramana, erregistroaren inguruko jarrera baikorrak sortuz eta pertsonalitateari loturiko ezaugarri bat bihurtuz; bestetik B ibilbidea, kulturala dena, motibazioaren eraginez hitanoaren ezagutza gehiago sakontzea ahalbidetzen duena. Horrez gain, 0 taldea ere aipatzen du, hitanoa ezagutzen ez dutenek edo esperimentaziorako aukerarik izan ez dutenek osaturikoa.

Ozaitak (2014) hitanoak presentzia altua daukan Tolosaldeko herrietako gazteak (batez ere mutilak) A ibilbidean kokatzen ditu. Aldiz, hitanoaren presentzia baxua dagoen herrietako gazteak 0 taldean kokatzen ditu. Hala ere, azken horien artean, batez ere nerabezaroan dauden mutilen kasuan, inguruko herrietako gazteekin harremanetan jartzean (hika egiteko joera daukaten inguruneak) hitanoa ezagutu eta esperimentatzen hasten dira A ibilbideari hasiera emanez.

Alberdi-Zumetak (2019) Azpeitian eginiko ikerketan ere ikusi zuen mutilen kasuan lehenengo pausoak modu naturalean ematea dela ohikoena, Lehen Hezkuntzako urteetan elkarren artean hitz eginez, hau da, Ozaitak (2014) aurkezten zuen A ibilbidea. Kasu horietan hasiera hain da naturala non gehienek ez dakiten noiz eta nola hasi ziren hikako tratamendua erabiltzen.

Neskei dagokienez, ordea, errealitatea erabat ezberdina da. Ozaitak (2014) ia neska guztiak 0 multzoan kokatzen ditu, hitano presentzia handia duten herrietako neska batzuk soilik salbuetsiz, horietako batzuk nerabezaro-gaztaro aldean egiten baitute A ibilbiderako jauzia, hau da, hitanoaren erabilerarako jauzia. Hori Alberdi-Zumetak (2019) ondorioztatutakoarekin bat dator, izan ere, neskak hika hitz egiten hasten diren kasuan, hitanorako jauzia askoz beranduago ematen dute, modu oso kontzientean eta normalean aurrez hausnartuta, kalean ez baitago mutilena beste eredurik.

Ikerketa ezberdinetako datuak ikusi ondoren, Muguruzak eta Bereziartuak (2020) esan bezala, hizkuntzaren transmisioa beste modu batean ulertu beharko genuke, hizkuntza bat ez baita etxean soilik ikasten.

### 1.3.3. HAURREK HIKA EGIN DEZATEN ESKU HARTZEAK

Hizkuntza bat ikasterako garaian garrantzitsua da ikasleek input-a jasotzea, hau da, mezuak hizkera berrian entzun, irakurri edota jasotzea eta hitanoaren kasuan ere berdina gertatzen dela esango genuke (Elortza, 2021).

Input hori zenbat eta txikiagotatik jaso, hobeto barneratuko dute haurrek tratamendua, beraz, adin horretan input egokia lortzea oso zaila denez, eskolek esku hartu beharko lukete hutsune hori bete ahal izateko. Eskolek hitanoaren aldeko apustua egin ezkeror umeei txikitatik entzungo lukete hitanoa euren inguruan eta euren egunerokotasunean txertatuta egongo litzateke, tratamendua naturaltasunez hartuz (Elortza, 2021).

Ondorengo lerroetan, eskoletan hitanoa bultzatzeko eginiko proposamen didaktikoen artean zenbait aipatuko ditugu. Kontuan izan behar da, ikastetxe zehatz batzuen testuingurura egokitutako proposamenak direla, beraz inon martxan jartzerako azterketa sakon bat egitea beharrezkoa litzatekeela.

Ainara Elortzak 2021ean haur hezkuntzan eginiko proposamen didaktikoan, haurren artean hitanoa txertatzea proposatzen da. Haurren egunerokotasunean hitanoa sartuz, tratamendu honen ospe txarra desegin, input egokia eskaini eta haurrek hitanoaren erabileran lehen saiakerak egitea izanik helburua.

Helburu horiek lortu nahian, Elortzak (2020) hainbat proposamen egiten ditu, hala nola, irakasleek haurrei hika hitz egitea, ipuin kontaketatako elkarriketetan hitanoa erabiltzea, hitanoaren presentzia duten ipuinak haurren eskura jartzea, antzerkiak hitanoa erabiliz egitea eta hitanoa duten abesti, olerki edo jolasak txertatzea.

Uxue Zabalak (2021) eginiko “Kantu kantari, bai hi eta bai ni!” proposamenak, Elortzaren (2020) zenbait ideia praktikan jartzen ditu, antzezlan bat egitea proposatuz. Kasu honetan, Tolosako ikastetxe bateko 3.mailako ikasleentzat eginiko proposamena da. Laburki azalduta, helburuak bi dira: alde batetik, hitanoaren ezagutza landu eta hitanoak euren ingurunean duen egoeraz jabetzea; bestetik, modu ludiko batean hitanoaren ahozotasuna landu eta erabilera bultzatzea.

Alaitz Imazek (2018) Seguran egin zuen bere proposamena, zehazki esanda Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan “Eingo al diau?; Nahi denanen, HIKA!” proiektuaren bidez, hemen ere, helburu nagusia hitanoa ezagutu eta berarekin jolastea izanik. Sekuentzia didaktiko honetan nahiz eta jarduerak, adinak eskatzen duen mailari jarraiki, konplexuagoak izan, hitanoari dagokionean hartzen den bideak antzekoa izaten jarraitzen du, hitanoarekin harremanak sortu eta erabilera bultzatzea, hain zuzen. Kasu honetan, azken emaitza ikasirikoa praktikan jarritz gustukoak dituzten marrazki bizidunak hitanora bikoiztea da. Jarduera ezberdinen artean, euskarazko erregistro ezberdinak erabiltzen dituzten filmak ikustea edota abesti nahiz kontaketak entzutea aurki daitezke.

Azken proposamen honetan ezberdintasun bat aurki daiteke aurrekoekin alderatuta, eskola eta irakasleen parte hartzea ez ezik, Segura herriko zenbait herritarren parte hartzea ere bultzatzen da. Herrian dagoen hika aritzeko ohitura probestu asmoz, elkarriketak baliatuz, proposamen didaktikoa eskolako hormetatik at ateratzen da.

Bereziki Haur Hezkuntzarako edo Lehen Hezkuntzarako egindako proposamenez gain, DBH-rako ere egin dituzte proposamenak: Amianok (2016) komikia hitanoaren irakaskuntzarako baliabide gisa aurkeztu zuen eta Gurrutxagak (2018) hitanoa landu eta erabiltzeko material didaktikoa prestatu zuen.

Esku hartze ezberdinak ikusi ondoren, izan adin txikiagoko ikasleak edo helduagoak, esan daiteke guztiek antzeko bidea jarraituz lantzen dutela hitanoa. Kulturak eskaintzen digun hitano apurra eta zenbait kasutan herriko hitano aberastasuna baliatuz lehen pausoak emateko proiektuak martxan jarri daitezke.

Edozein kasutan, ezinbestekoa izango da irakasleen inplikazioa eta parte hartzea, irakasleak izango baitira haurrei hitanorako bidea irekiko dietenak, izan baliabide kulturalak eskainiz

(liburuak, abestiak, filmak...) edota ahozko ereduak eskainiz, eurek hitz eginda nahiz herritarrekin lotura eginda.

Atal teorikoan zehar esandakoak nolabait laburbilduz, hitanoaren inguruko konnotazio negatiboak, generoaren eragina, eta transmisioa aztertu ondoren, tratamendu honen barnean bi aldaketa nagusi izan direla eta bide berean jarraitzen duela esan daiteke. Batetik, hitanoaren transmisioaren aldaketa eta bestetik nokaren beherakada. Gaur egungo gazteek hitanoa parekoekin ikasten dute, gehienetan etxetik kanpo transmisio horizontala gailenduz transmisio bertikalari, baina hori gehienbat tokarekin gertatzen da, kalean aurki daitezkeen noka ereduak urriak baitira. Hori dela eta, nokaren beherakada gertatzen ari da emakumezkoak pixkanaka hitanotik aldentuz.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1. TESTUINGURUA

Ikerketa hau Gipuzkoako bihotzean kokatuta dagoen herri txiki batean oinarritzen da. Eustatek (2021) argitaratutako datuen arabera, 2021ean 537ko biztanle kopurua izan du, horietako %85,68 euskaldunak dira, %4,63 ia euskaldunak eta azkenik %10,08 erdaldunak (Eustat, 2018).

Herrian kokatuta dagoen ikastetxea txikia da. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zerbitzuak eskaintzen ditu eta guztira 52 ikasle daude 5 talde ezberdinetan banatuta. Haur Hezkuntzako 19 ikasleak bi taldetan banatzen dira, alde batetik 2-3 urtekoak, 9 ikasle, eta bestetik 4-5 urtekoak 10 ikasle. Lehen Hezkuntzan, berriz, 33 ikasle daude hiru taldetan banatuta, ziklo bakoitzeko ikasgela bat osatuz: LH 1 zikloa (1-2 mailak), LH 2 zikloa (3-4 mailak) eta LH 3 zikloa (5-6 mailak) Gaur egun LHko ikasgela bakoitza 11 ikasleaz osatzen da (<https://labur.eus/Rrfxz>).

### 2.2. HELBURUAK ETA IKERKETA-GALDERAK

Ikerketa honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako haurrek hitanoan dituzten hastapenak ezagutzea da, baina horrez gain, beste azpi-helburu bat ere finkatu da, hain zuzen, tratamendu honen erabileran generoak duen zeresana ikusita, hitanoaren erabileraren hasieran aldagai horrek dakartzan ezberdintasunak aztertzea.

Aipaturiko helburu horietan oinarrituta, lau ikerketa galdera planteatu ditugu:

1. Zein ezaugarri dauzka hitanoaren hastapenak arnas gune bateko haurren kasuan?  
Lehen Hezkuntzako haurrak hitanoaren erabileraren inguruan duten abiapuntua ezagutzen lagunduko digu. Noiz hasten diren, nola hasten diren eta norekin erabiltzen duten.
2. Generoen artean zer desberdintasun dago hitanoaren erabileraren abiapuntuari dagokionean?  
Hitanoaren erabileran nabaria den generoen arteko desberdintasuna noiz hasten den ikusiko dugu, bai eta haurrek txikitatik dituzten hizkuntza joerak zein diren ezagutu ere. Genero berekoen arteko hitanoaren erabilera, bai eta genero ezberdinen artekoa aztertuko ditugu, horien arteko ezberdintasunak ezagutuz.
3. Gurasoek zer pertzepzio dute seme-alabek duten hitanoaren erabileraren inguruan?  
Arrazoi ezberdinak direla medio, hitanoa ez da garai eta toki guztietan ongi ikusia izan. Tratamendu honek izan zuen edota oraindik duen konnotazio negatibo horrek jarraitzen ote duen eta ikerketan aztertutako haurren gurasoek gai honen inguruan eta batez ere



umeen erabileraren inguruan zer ohitura eta pertzepzio edo ikuspuntu dauzkaten ezagutuko dugu. Horrez gain, haurren hitanoaren erabileraren inguruko informazio gehiago jasoko dugu.

4. Irakasleek zer pertzepzio dute ikasleek duten hitanoaren erabileraren inguruan?

Esan bezala, hitanoa ez da eremu guztietan berdin ikusia izan. Tratamendu hau oraindik estereotipo zehatz batzuekin eta gune ez-formalekin lotzen jarraitzen ote den, eta ikerketan aztertutako haurren irakasleek gai honen inguruan eta batez ere ikasleen erabilerari dagokionean zer ikuspuntu duten ezagutuko dugu. Horrez gain, ikasleek egiten duten hitanoaren erabileraren inguruko informazio gehiago lortuko dugu.

## 2.3. DATUAK BILTZEKO TRESNAK

Proposaturiko ikerketa galderei erantzuna eman nahian, datu bilketa bi ataletan banatu da: alde batetik ikasleena, bestetik guraso eta irakasleena. Batzuekin eta besteekin erabiliriko tresnak ezberdinak izan dira.

Datu bilketaren lehendabiziko zatia, lehenengo bi ikerketa galderetan zentratzen da bi tresna ezberdinen bidez: behaketa zuzena eta elkarriketa. Bigarrenengo zatiak berriz, hirugarren eta laugarren ikerketa galderari helduko die galdetegi bidez.

### 2.3.1. BEHAKETA

Behaketa zuzena teknikaren helburua giza portaera, kasu honetan ikasleena, inolako manipulaziorik gabe begiratzea da (behatuen portaera gertatuko den testuinguruan eta estimuluengan ez da inolako kontrolik egongo), hortik ikerketarako garrantzitsua izango den informazioa eskuratzeko (Juaristi, 2003). Gure kasuan, behaketaren bidez, errealitatearen ikuspuntu orokor bat ezagutzea lortu nahi da, ondoren elkarriketatu nahi diren subjektuak identifikatzeko, beraz, emaitzen atalean ez dira tresna honen bidez bildutako datuak aurkeztuko.

Ikasleak naturaltasunez, lagunartean daudenean duten erabilera espontaneoak ezagutzea da interesatzen zaiguna. Horretarako, jolas-orduez baliatu gara, horiek baitira ikasleek eskola orduetan dituzten lagunarteko harreman naturalenak sortzen dituzten guneak, ingurune ez-formalean gertatuak direnak. Beraz, ikerketa gauzatu den herriko Lehen Hezkuntzako ikasleak behatu dira teknika honen bidez, ziklo guztietako neska zein mutilak egunerokotasunean, batez ere jolas orduan, dituzten interakzioetan.

Behaketa egituratua izan da, hau da, datuak ahalik eta modu errazenean bildu ahal izateko fitxa zehatz batekin egin da lan (Juaristi, 2003). Erabiliriko txantiloia sortzeko bi dokumentu hartu dira oinarritzat “Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa” (Altuna eta Basurto, 2013) eta “ARRUE programa. Ikasleen eskola-giroko hizkuntza erabileraren azterketa” (Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009).

Erabili dugun eta segidan aurkezten dugun txantiloian ikus daitekeen moduan, taula hau elkarrizketetan nor, nori eta zein tratamendutan zuzentzen zaion modu errazean biltzeko prestatu da. Modu honetan, bigarren galderaren erantzuna aztertzeko datuak bildu dira generoa behaketetan sartuz. Bestalde, adina ere kontuan hartzen denez lehenengo ikerketa galderarako hitanoaren hastapenen inguruko azterketa egiteko ere baliagarria izan da. Azkenik, oharrei ere bere garrantzia eman zaie behaketetan, elkarrizketetan erabiltzen duten tratamenduaz haratago, bestelako aztarna interesgarri batzuk ere aurkitu baitaitezke, esaterako, tratamendu bat baino gehiago erabiltzen dituzten kasuan, noiz jotzen duten bakoitzera.

| Eguna         |                                  |            |           |      |      |      |         |
|---------------|----------------------------------|------------|-----------|------|------|------|---------|
| Ikastetxea    |                                  |            |           |      |      |      |         |
| Ordua         |                                  | Jolasordua |           |      |      |      |         |
| Elkarrizketak | Parte-hartzaile kopurua / Zikloa | NOR        | NORI      | NOLA |      |      | Oharrak |
|               |                                  |            |           | TOKA | NOKA | ZUKA |         |
| 1             | 4                                | 1 ikaslea  | 2 ikaslea |      |      | x    |         |
|               |                                  |            | 3 ikaslea |      |      | x    |         |
|               |                                  |            | 4 ikaslea |      |      | x    |         |
|               |                                  | 2 ikaslea  | 1 ikaslea |      |      | x    |         |
|               |                                  |            | 3 ikaslea |      |      | x    |         |
|               |                                  |            | 4 ikaslea | x    |      |      |         |
|               |                                  | 3 ikaslea  | 1 ikaslea |      |      | x    |         |
|               |                                  |            | 2 ikaslea |      |      | x    |         |

|  |  |           |           |   |   |   |  |
|--|--|-----------|-----------|---|---|---|--|
|  |  |           | 4 ikaslea |   |   | x |  |
|  |  | 4 ikaslea | 1 ikaslea |   | x |   |  |
|  |  |           | 2 ikaslea | x |   |   |  |
|  |  |           | 3 ikaslea |   | x |   |  |

### 2.3.2. ELKARRIZKETA

Sakoneko elkarrizketa da informazioa lortzeko helburuarekin bi pertsonaren artean egiten den elkarrizketa, hau da, elkarrizketagilea eta elkarrizketatuaren arteko elkarrizketa. Konfiantzazko harremana lortu behar da helburuetara iritsi ahal izateko, bestela posible da elkarrizketa bide onetik ez joatea eta informazio baliagarria galtzea (Juaristi, 2003).

Garrantzitsua da elkarrizketa modu kontrolatuan egitea, horretarako landu nahi diren gaiak biltzen dituen gidoi bat osatuz. Hala ere, gidoi hori ez da zehatz-mehatz jarraitu beharrik egongo, elkarrizketaren arabera, ordena aldatu baitaiteke (Juaristi, 2003).

Elkarrizketaren bidez, aurrez aipatu bezala, lehenengo eta bigarren ikerketa galderetarako informazioa lortu nahi da, hau da, hitanoaren hastapenak zein ezaugarri dauzkan ikasle hauen kasuan eta generoak horretan izan dezakeen eragina. Modu horretan, ikasleek aisialdian erabiltzen duten tratamendua zein den jakingo da eta baita egiten duten hitanoaren erabileraren inguruan duten pertzepzioa ezagutu ere.

Gidoia egiteko Muguruzak eta Bereziartuak beren ikerketan erabilitako materiala hartu da kontuan (Muguruza, Bereziartua eta Etxeberria, 2020). Ikasleen datu orokorreaz gain, hitanoaren input-ari eta hastapenei buruzko galderez osatu da gidoia. Horrela, alde batetik euren ingurunean entzuten edo jasotzen duten hitanoaren eta bestetik erabiltzen duten hitanoaren inguruko informazioa eskuratu da. (Elkarrizketetarako erabili den gidoia 1 eranskinean dago ikusgai)

### 2.3.3. GALDETEGIA

Datu bilketaren bigarren zatia batez ere hirugarren eta laugarren ikerketa galderetan zentratzen da, hau da, guraso eta irakasleen ohituretan eta hitanoarekiko pertzepzioetan. Horretarako erabileriko datu bilketarako tresna galdetegia da. Galdetegia, galdeketa baten bidez informazioa

jasotzeko erabiltzen den teknika bat da, lagin bat aztertuz populazioari buruzko informazio adierazgarria lortzea ahalbidetzen duena (Juaristi, 2003).

Teknika honek bere abantailak eta desabantailak izan ditzake, izan ere, informazio iturri aberatsa eta teknika egokia da lagin baten bidez populazio handiei buruzko orokorpenak lortzeko, baina baditu bere arriskuak ere, posible baita elkarrizketatuek galderak interpretatu eta erantzuteko zailtasunak izatea (Juaristi, 2003).

Galdetegiaren bidez bi talderen informazioa bildu nahi denez, galdetegi ezberdinak egitea erabaki da, alde batetik irakasleena eta bestetik gurasoena. Irakasleen galdetegia ikastetxean Lehen Hezkuntzako ikasleekin lanean aritzen diren irakasle guztiei zuzenduta dago, gurasoena berriz, Lehen Hezkuntzako ikasleen guraso guztiei.

Galderak hitanoa Azpeitian aztertzeko eginiko 3 galdetegi oinarri gisa hartuta osatu ditugu (Muguruza eta Bereziartua, 2020), zehazki esanda, gaztetxoentzat, gazteentzat eta herritarrentzat prestatutako galdetegiak. Egitura berdintsua jarraitzen dute sortu ditugun bi galdetegiek. Lehendabizi galdera orokor batzuk daude betetzailearen datu orokorrak biltzeko eta ondoren galdera zehatzekin jarraitzen da. Horiek, ezberdinak dira galdetegi bakoitzean, baina bietan lehenengo euren hitanoaren erabilerari nahiz usteei buruzko galderak aurki daitezke eta ondoren seme-alaba edota ikasleetan zentratutakoak.

Jaso nahi den informazioaren arabera, mota ezberdinetako galderak prestatu dira formari dagokionean, irekiak (inkestatuak nahi duena erantzuteko aukera dutenak), edota itxiak (guk aukeraturiko erantzun zehatzetara mugatzen direnak, kasu batzuetan aukera-zerrenda batetik bakarra markatzeko aukera daukate, beste kasu batzuetan nahi beste). Ondorengo 1 eta 2 tauletan ikus daiteke galdetegi bakoitza zer atalek osatu duten eta atal bakoitzean zenbat eta zer motatako itemak erabili diren (galdetegiak bere osotasunean 2 eta 3 eranskinetan daude ikusgai):

## 1 taula

### *Gurasoentzako galdetegiaren atalak eta itemak*

| Atalak         | Item kopurua | Item motak | Ikerketa-galdera |
|----------------|--------------|------------|------------------|
| Datu orokorrak | 4            | Itxia      | Aukera anitzak   |
| Gurasoak eta   | 1            | Itxia      | Aukera anitzak   |

|                            |   |        |                                 |         |
|----------------------------|---|--------|---------------------------------|---------|
| hitanoa                    | 4 | Itxia  | Koadroak (nahi<br>beste aukera) | 3       |
| Seme-Alabak eta<br>hitanoa | 2 | Itxia  | Aukera anitzak                  | 3       |
|                            | 3 | Itxia  | Koadroak (nahi<br>beste aukera) | 3       |
|                            | 5 | Itxia  | Aukera anitzeko<br>sareta       | 1 eta 3 |
|                            | 1 | Itxia  | Sareta<br>koadroduna            | 1       |
|                            | 3 | Irekia | Paragrafoa                      | 3       |

## 2 taula

*Irakasleentzako galdetegiaren atalak eta itemak*

| Atalak                 | Item kopurua | Item motak | Ikerketa-galdera             |         |
|------------------------|--------------|------------|------------------------------|---------|
| Datu orokorrak         | 1            | Itxia      | Aukera anitzak               | 4       |
|                        | 1            | Itxia      | Koadroak (nahi beste aukera) | 4       |
| Irakasleak eta hitanoa | 3            | Itxia      | Aukera anitzak               | 4       |
|                        | 5            | Itxia      | Koadroak (nahi beste aukera) | 4       |
| Ikasleak eta hitanoa   |              |            |                              |         |
|                        | 6            | Itxia      | Koadroak (nahi beste aukera) | 1 eta 4 |
|                        | 5            | Itxia      | Aukera anitzeko sareta       | 1 eta 4 |

|   |        |                      |   |
|---|--------|----------------------|---|
| 1 | Itxia  | Sareta<br>koadroduna | 1 |
| 3 | Irekia | Paragrafoa           | 4 |

## 2.4. PARTE-HARTZAILEAK

Aurrez azaldu bezala, ikerketa honetan datu bilketa hiru taldetan egin da. Alde batetik Lehen Hezkuntzako haurrak eta bestetik horien gurasoak eta irakasleak. Guztira, 48 parte-hartzaile izan dira.

Behaketa bidez, Lehen Hezkuntzako ikasleen %85aren datuak bildu dira, zehazki esanda 28 ikaslerenak. Lehenengo ziklokoak 11 izan dira, 8 mutil eta 3 neska; bigarren ziklokoak 10 ikasle, 5 mutil eta 5 neska; eta, azkenik, hirugarren ziklokoak 7 ikasle, 5 mutil eta 2 neska.

Bigarrenengo datu-bilketa tresna elkarrizketa izan da. Behaketetan lortutako datuen azterketaren arabera, ziklo bakoitzeko hiru ikasle elkarrizketatzeko aukeraketa egin da, adin bakoitzeko ikasle ezberdinen iritzia jaso ahal izateko. Ziklo bakoitzeko neska bat eta bi mutil hautatu dira, guztira 9 ikasle. Zehatzagoak izanda, hitanoa erabiltzen ez duen neska bat (inork erabiltzen duenik ez baita ikusi behaketetan) eta hika hitz egiten duen eta ez duen mutil bana aukeratu da ziklo bakoitzean.

Azkenik, galdetegietan guztira 20 parte hartzaile izan dira, 14 gurasoen galdetegian eta 6 irakasleen galdetegian. Guraso parte hartzaileen artean emakumezkoak %85,7 dira, gizonezkoak aldiz, %14,3. Bizilekuari dagokionean, parte hartu duten gurasoen %85,7 herrikoak bertakoak dira, %7,1 inguruko auzo edo herri txikietakoak eta azkenik beste %7,1 inguruko herri handiagotakoak. Gehienak, zehazki esanda % 71,4 kalean bizi dira gainontzeko %28,6 berriz baserrian.

Irakasleei dagokienean, parte hartzaileen %66,7 emakumezkoak dira, gizonezkoak berriz %33,3. Lan egiten duten zikloari dagokionean, parte hartzaileen %50ek lehenengo zikloko haurrekin egiten du lan, bigarren ziklokoekin beste %50ek eta azkenik hirugarren zikloko haurrekin beste %50ek. Irakasleetako batzuk ziklo bat baino gehiagotako haurrekin egiten dute lan.

## 2.5. DATUAK BILDU ETA AZTERTZEA

Erabiliriko tresna ezberdinen bidez datuak bildu ahal izateko, urrats ezberdinak jarraitu dira. Elkarrizketa eta galdetegiak egin ahal izateko, eskolako arduradunekin kontaktuan jarri eta beharrezko eskaerak egin nahiz baimenak eskatu dira guztia aurrera eraman ahal izateko.

Behaketetan aurrez aipaturiko txantiloia bidez jasoriko informazioa irakurri da. Ikasle bakoitzak parte hartu duen elkarrizketa kopurua, hartzaile nahiz entzule gisa jokatu duen elkarrizketa kopurua eta hauetan erabili duen hizkera aztertu dira.

Elkarrizketetan, arlo gehiago hartu dira kontuan. Lehendabizi, elkarrizketak burutzeko giro egokia osatzea, hau da, ikasleentzat eroso den gunea, momentu eta modua aurkitzea. Elkarrizketa ahots-grabagailu bidez grabatu da, idatziz informazioa jasotzeak ekar dezakeen moteltasunaren oztopoa saihestuz. Horretarako, noski, gurasoei baimen orri bat igorri zaie seme-alaben ahotsa grabatzearen adostasuna agertzeko. Behin hori lortuta, ikasketetan ahalik eta eragin txikiena izateko helburuarekin, ikasle-talde bakoitzeko tutoreekin hitz egin da, ikasleak gelatik ateratzeko unerik egokiena hautatzeko. Behin guraso nahiz irakasleen baimena izanda, ikastetxeko liburutegian egin da elkarrizketa, ikasleak eurentzat ezaguna den ingurune batean mantenduz baina elkarrizketarako beharrezkoa den lasaitasun giroa lortuz.

Elkarrizketetan ere, jasoriko edukien analisia egin da emaitzen atala osatu ahal izateko eta horretarako, lehendabizi elkarrizketak transkribatu dira. Elkarrizketetan lortutako informazioa anonimotasuna mantenduz erabiltzeko, ondorengo kodifikazioa erabili da emaitzen atalean. Kodifikazioa 4 ezaugarriren arabera osatu da: ikaslearen ziklo zenbakia, erabiltzen duen tratamendua (H toka eta noka, T toka, N noka eta Z zuka), generoa (N neska, M mutila) eta azkenik kodea errepikatzen den kasuan soilik, bereizteko zenbakia (1, 2). 3 taulan adibideak.

### 3 taula

*Elkarrizketatutako subjektuak identifikatzeko kodeak*

|                                                 | ZIKLOA<br>(1/2/3) | TOKA/NOKA/<br>HIKA/ZUKA | NESKA/<br>MUTILA | -/1/2 | KODEA |
|-------------------------------------------------|-------------------|-------------------------|------------------|-------|-------|
| Ikaslea 1                                       | 1                 | T                       | M                | -     | 1TM   |
| Toka hitz egiten duen lehenengo zikloko mutila. |                   |                         |                  |       |       |
| Ikaslea 2                                       | 1                 | Z                       | M                | -     | 1ZM   |

Zuka hitz egiten duen lehenengo zikloko mutila.

|           |   |   |   |   |     |
|-----------|---|---|---|---|-----|
| Ikaslea 3 | 1 | Z | N | - | 1ZN |
|-----------|---|---|---|---|-----|

Zuka hitz egiten duten lehenengo zikloko neska.

|           |   |   |   |   |     |
|-----------|---|---|---|---|-----|
| Ikaslea 4 | 2 | Z | N | - | 2ZN |
|-----------|---|---|---|---|-----|

Zuka hitz egiten duen bigarren zikloko neska.

|           |   |   |   |   |      |
|-----------|---|---|---|---|------|
| Ikaslea 5 | 2 | T | M | 1 | 2TM1 |
|-----------|---|---|---|---|------|

Toka hitz egiten duen bigarren zikloko mutila.

|           |   |   |   |   |      |
|-----------|---|---|---|---|------|
| Ikaslea 6 | 2 | T | M | 2 | 2TM2 |
|-----------|---|---|---|---|------|

Toka hitz egiten duen bigarren zikloko mutila.

|           |   |   |   |   |     |
|-----------|---|---|---|---|-----|
| Ikaslea 7 | 3 | T | M | - | 3TM |
|-----------|---|---|---|---|-----|

Toka hitz egiten duen hirugarren zikloko mutila.

|           |   |   |   |   |     |
|-----------|---|---|---|---|-----|
| Ikaslea 8 | 3 | Z | M | - | 3ZM |
|-----------|---|---|---|---|-----|

Zuka hitz egiten duen hirugarren zikloko mutila.

|           |   |   |   |   |     |
|-----------|---|---|---|---|-----|
| Ikaslea 9 | 3 | Z | N | - | 3ZN |
|-----------|---|---|---|---|-----|

Zuka hitz egiten duen hirugarren zikloko neska.

Azkenik, galdetegiari dagokienean, eskolako zuzendaritzaren laguntzaren bidez galdetegiak guraso nahiz irakasleen artean telematikoki zabaldu ondoren, jasotako erantzunak aztertu dira. Horretarako, alde batetik galdera itxietako erantzunen maiztasunak nahiz ehunekoak kalkulatu



dira eta beste aldetik, galdera irekietako erantzunen analisia egin da lorturiko informazioarekin emaitzen atala osatu ahal izateko.

Kasu honetan ere, galdetegietan jasoriko informazioa emaitzen atalean erabili ahal izateko, anonimotasuna mantenduz kodifikazioa erabili da. Kasu honetan, bi karakterez osatua: galdetegi zenbakia eta guraso (G) edo irakasle (I) hizkiz osatua. Esaterako, galdetegia bete duen seigarren gurasoa izendatzeko “6G” kodea erabili da.

### 3. EMAITZAK

Ondorengo atalean, ikerketan erabilitako tresna ezberdinen bidez lortutako emaitzak, lau ikerketa galderen arabera antolatuta aurkeztuko dira.

#### 1. Ikerketa-galdera: Zein ezaugarri dauzka hitanoaren hastapenak arnasmune bateko haurren kasuan?

Metodologiaren atalean azaldu bezala, ikerketa-galdera honi erantzun ahal izateko informazioa 9 ikasleri egindako elkarriketetatik eta guraso nahiz irakasleei eginiko galdetegietatik atera dugu.

Ikasleei beraien hitanoaren hastapenei buruz galdetzean gehien jasotako erantzuna “ez dakit” izan da. Norekin hasi ziren, noiz, nola... galderen aurrean ez dutela gogoratzen aipatu dute gehienek, bi ikasle izan dira ohartu gabe hasi zirela aipatu dutenak, hau da, modu naturalean. Aldiz, zergatik hasi zirela uste duten galdetzean erantzun gehiago jaso ditugu, gehienak besteei entzutearekin lotutakoak. Batzuk aitari entzuteagatik, besteek lagun edota zaharragoei entzuteagatik baina erantzuna eman duten 4 ikasleek arrazoi bera eman dute. Hona hemen erantzun hori eman duen ikasle baten hitzak:

Ba igual guk laun zarrak bezela dazkau ta hoiek hika hitzeite zuen ta ordun ba gure horreatik hasi ginan.. [3TM]

Hitanoaren hastapenekin lotura izan dezaketen beste kontu batzuei buruz ere galdetu diegu ikasleei banakako elkarriketetan. Lehendabizi inputaren inguruan galdetu diegu, hau da, inguruan entzuten al duten eta batez ere beraiei hika egiten al dieten. Ikasleetako 2k hika hitz egiten dien inor ez dutela esan digute, aldiz beste 7 ikasleek hika jasotzen dute ingurukoengandik. Esan digutenez guztiei hitz egiten diete lagunek hika, baina kasu batean izan ezik, beste guztietan lagun mutilak soilik aipatu dituzte. Lagunekin orokorrean jolasean ari direnean, gelan edota kalean hika hitz egiten dutela aipatu dute: “Jolasten ai geanen, gelan...” [2TM2] eta “Kalen bai, beti” [3TM]. Familiakoak haur gutxiagok aipatu dituzte, zehazki esanda 5ek, eta guztiek familia kide ezberdinak aipatu dituzte. Aita izan da errepikatu den bakarra (2 ikaslek), gainontzekoak ikasle bakarrak aipaturikoak izan dira, ama, lehengusu mutilak eta izeba-osabak. Familiakoek noiz hitz egiten dieten galdetzean inork ez du esan beti hitz egiten dietenik, batzuetan soilik. Batzuetan horren atzean katxondeoan edota jolasean ari direnean erabiltzen dutela aipatu dute ikasleetako 4k. Hemen horren adibide bat:

Lagunakin ai naizenen pixkat hola katxondeo bezela iteko. [3ZM]

Gaur egun hika norekin hitz egiten duten galdetzean 5 ikasleren erantzunak jaso ditugu eta izen ezberdinak aipatu badituzte ere, guztiek aipatu dituzte lagunak. Ikasle bakar bat izan da lagunei izeba-osabak gehitu dizkiena.

Gurasoei ere galdetu diegu euren seme-alabek hitanoa erabiltzen ote duten. 4. taulan ikus daitezke jasotako erantzunak:

#### 4 taula

*Beren seme-alabek hitanoa erabiltzen al duten galdetutakoan gurasoek emandako erantzunak (%)*

| Hitanoa erabili |       | Bai   | Ez    | Ez daukat seme/alaba |
|-----------------|-------|-------|-------|----------------------|
| 1. haurra       | Alaba | 21,42 | 35,71 | 42,87                |
|                 | Semea | 50    | 28,57 | 21,43                |
| 2. haurra       | Alaba | 14,28 | 35,71 | 50,01                |
|                 | Semea | 35,71 | 35,71 | 28,58                |
| 3. haurra       | Alaba | 14,28 | 21,42 | 64,30                |
|                 | Semea | 35,71 | 14,28 | 50,01                |

4 taulako datuetan adierazten den moduan, gurasoen ustetan, semeek hitano gehiago erabiltzen dute, horren erakusle da gurasoen erdiek, seme zaharrenek hika hitz egiten dutela adieraztea. Guraso horiek emandako erantzunen arabera, alaben hitano erabilera berriz %22tik ez da pasatzen, kasu guztietan erabiltzen ez dutenen ehunekoak erabiltzen dutenenak baino handiagoak izanik.

Ikasleei hitanoaren inguruan dituzten sentipenen inguruan ere galdetu diegu, zehazki esanda ea gustatzen ote zaien edo ez. 9 ikasleen artean erantzun ezberdinak jaso ditugu. Batetik, batek hitanoa ez zaiola gustatzen esan digu, zatarra iruditzen zaiolako, eta beste batek entzutea gustatzen zaiola baina hitz egitea ezetz esan digu, arraro sentitzen delako. Bestetik, 7k hitanoa gustatzen zaiela esan digute. Gustatzearen arrazoiaren artean zuka baino hobea izatea edo barregura ematea aipatu dizkigute, baita zuka euskara batuaren antzekoa iruditzea ere. Hitanoaren aldeko jarrera daukan ikasle horietako baten hitzak ekarri ditugu hona, hitanoa erabiltzen ez jakin arren asko gustatzen zaiola esan baitigu:

Nei baserriko lanak eta asko gustatze zaizkit behiak dazkaulako eta han inguruan asko hitzeitea hola baserritan da hola, asko hitzeitea. Horreatik gustatze zait baina eztaikit iten. [2ZN]

3 ikaslek hitanoarekiko dituzten nahiak ere erakutsi dizkigute. Horietako batek, nahiz eta gaur egun ez duen hitanoa erabiltzen lagunek hika hitz egitea nahiko lukeela esan digu, beste biek berriz, etorkizunean erabiliko dutela uste dutela esan digute.

Hitanoak zukak ez duen zer daukan galdetzean ikasleei erantzutea kostatu zaie, eta kasu honetan ere, 5 ikasleren erantzuna ez dakitela izan da. Erantzun duten 4en artean aipagarrienak tonu ezberdina duela eta motzean hitz egiten dela izan dira. Hori erakusten du honako erantzunak:

Hizkuntza como diferente bat bezela ta... eztaikit, motxen bezela esateue normalen. [3ZN]

Hitanoa erabiltzen ez dutenei ere galdetu diegu horren zergatiaren inguruan. 3 ikasleetatik bakarra izan da gaizki aterako zaion beldurrarekin gutxi probatzen duela esan duena, hau da, hitanoa ez egitearen arrazoi nagusi gisa bere erabilera urria azaldu duena. Beste biak, etxeek ez hitz egitea edota ama hiri handi batekoa izatea jarri baitituzte arrazoitzat: “Porque nire familikok normalen eztiarte iten” [3ZN].

Zuka eta hika, biak, erabiltzen dituzten ikasleen artean, tratamendua nola aukeratzen duten galdetzean jasotako erantzunak gutxi izan dira, zehazki esanda, 2 ikasleetako batek esan digu berari hitz egiten dien moduan erantzuten duela, aldiz beste batek irteten zaion moduan hitz egiten duela esan du, hala ere, neskei zuka egitean zentratu da honen arrazoi gisa neskei hitz egitea zailagoa iruditzen zaiola esanez: “Holaxe ertetze zaitelako. Ba, neskai iruitze zait, eztaikit, zailagua bezela” [3TM].

Ikasleei hika hitz egiten hasteko emaniko lehen urratsei buruz galdetutakoan ez dira gai izan hori zehazteko, jauzi hori oharkabea eta modu naturalean egin izanaren seinale izan liteke. Aldiz, gehiengoak argi du gaur egun eginiko erabilera nori zuzendutakoa den, baina zergatiak azaltzeko zailtasunak izaten jarraitzen dute. Lagunartea izan da hika gehien erabiltzen den eremua testuingurua edozein izanda ere, betiere konfiantza giroan kokatuz gero. Hala ere, esan beharra dago, hori, batez ere, mutilen artean zentratzen dela, elkarrizketatutako neska guztiek hitanoa ez dutela erabiltzen baieztatu baitute.

Azpiatal honetako emaitzak laburbilduz, haurren artean hitanoa gehienbat mutilengana eta lagunartera zuzendutako tratamendua dela ikusi da, horiek izan baitira hitanoa erabiltzen dutela adierazi duten ikasle bakarrak.

## 2. Ikerketa-galdera: Generoen artean zer desberdintasun dago hitanoaren erabileraren abiapuntuari dagokionean?

Bigarren ikerketa galderari dagokionean erantzunak erabiliriko ikerketa tresna guztietatik bildu dira, bai behaketetatik, baita elkarrizketetatik eta galdetegietatik ere.

Behaketetan elkarrizketak egiteko ikasleak hautatzeko informazioa bildu bitartean oso nabaria izan da ikasle neska eta mutilen artean dagoen desberdintasuna hitanoari dagokionean. Lehen Hezkuntzako mutilen gehiengoak hitanoa erabiltzen duen bitartean, neskek ia ez dute erabiltzen, ez dela batere erabiltzen ez baieztatzeagatik.

Elkarrizketetan ere nabari geratu da behaketetan ikusirikoa, elkarrizketatutako hiru nesketako inork ez baitu hitanoa erabiltzen, aldiz mutiletan gutxiago edo gehiago, ia guztiak izan dira apur bat bada ere erabiltzen dutela adierazi dutenak: “Etxian normal hitzeitet, launakin hika” [1TM].

Gurasoei seme-alabek egiten duten hitanoaren erabilerari buruz galdetzean ere, emaitza altuenak hiztunak nahiz hartzaileak gizonezkoak direnean lortu dira. 5. taulan ikus daitezke jasotako erantzunak:

### 5 taula

*Beren seme-alabek hitanoa norekin erabiltzen duten galdetutakoan gurasoek emandako erantzunak (%)*

| Hitanoa erabili | norekin | Lagun neska | Lagun mutila | Anaia | Arreba/ ahizpa | Lehengusu mutila |
|-----------------|---------|-------------|--------------|-------|----------------|------------------|
| 1. haurra       | Alaba   | 6,66        | 13,33        | -     | -              | 6,66             |
|                 | Semea   | 6,66        | 40,00        | 6,66  | -              | -                |
| 2. haurra       | Alaba   | -           | 13,33        | 6,66  | -              | 6,66             |
|                 | Semea   | -           | 33,33        | -     | -              | 6,66             |
| 3. haurra       | Alaba   | 6,66        | 6,66         | -     | -              | -                |
|                 | Semea   | 6,66        | 20,00        | 6,66  | 6,66           | -                |

Seme zaharrenaren kasuan, gurasoen %40k euren semeak lagun mutilekin hika erabiltzen duela esan du, aldiz lagun neskekin %6,66k soilik. Patroi hau seme guztien kasuan betetzen da, lagun mutilekin hika erabiltzen dutela adierazi duten guraso kopurua askoz altuagoa da lagun neskekin erabiltzen dutela adierazi dutenena baino, azken hori batzuetan aipatu ere ez baita egiten. Lagunez gairikiko subjektuak agertzen direnetan ere, semeen kasuan batez ere mutilak aipatzen dira, ehuneko oso txikietan (%6,66 zehazki esanda) aipatu baitira lehengusu mutil eta anaiak; kasu bakar bat izan da arreba aipatu duena.

Alabei dagokienean hitanoa erabiltzen dutela adierazi dutenen artean, hartzaile mutilen kasuak gailentzen dira, batez ere lagun mutilenak, hala ere esan beharra dago semeekin alderatuta emaitza baxuak direla, %13,33 izan baita lorturiko ehuneko handiena. Gainontzean aipaturiko subjektu guztiak, izan neskak (lagunak) edota mutilak (lehengusuak eta anaiak) %6,66an parekaturik agertu dira.

Irakasleei ere galdetu zaie euren ikasleen hitano ohituren inguruan. Kasu honetan, ikasle neska eta mutilei dagokienean oso erantzun ezberdinak jaso dira. Ikasle mutilen kasuan, irakasleen %100ek adierazi du hitanoa erabiltzen duela. Aldiz ikasle nesken kasuan erantzun ezberdinak lortu dira; irakasleen arteko %16,7k erantzun du ikasle neskek hitanoa erabiltzen dutela, %50ek ez dutela erabiltzen eta %33,3k ez dakiela hitanoa erabiltzen ote duten edo ez.

Bide ezberdinetatik lortutako informazioan, argi ikusi da hitanoa batez ere mutilei zuzendutako arloa dela, talde honetako gehienek erabiltzen baitute hitanoa momenturen batean euren egunerokotasunean, aldiz, neskek ez.

### **3. Ikerketa-galdera: Gurasoek zer pertzepzio dute seme-alabek duten hitanoaren erabileraren inguruan?**


Hirugarren ikerketa galderari erantzun ahal izateko datuak, gurasoei eginiko galdetegitik jaso ditugu.

Hasteko, eurek egiten duten erabileraren inguruan galdetu diegu. Parte hartu dutenen artean %71,4k esan du hitanoa erabiltzen dutela, aldiz %28,6k ez duela erabiltzen erantzun du. Hika hitz egiten dutenen artean, %60k beste pertsonarekin konfiantza edo gertutasuna adieraztea jarri du hitanoaren erabileraren arrazoi gisa, %50ek naturalki irtetea, %30ek ohitura, %29k gustatzea eta azkenik, puntualki erabiltzen duela adierazi duenik ere egon da, %10 zehazki esanda. Ezetz erantzun dutenen artean berriz, ez jakitea (%50), zatarra iruditzea (%25) eta arraro sentitzea (%25) aipatu dituzte arrazoi modura.

Hitanoarekiko duten pertzepzioa ezagutu nahian, tratamendu hori zein balorerekin lotzen duten galdetu zaie. 1.grafikoan ikus daitezke jasoriko erantzunak.

## 1 grafikoa

*Gurasoek hitanoarekin lotzen dituzten baloreak.*



1. grafikoan ikus daitekeen moduan, nahiz eta hitanoarekin lotura duten balio gehiago ere aipatzen diren, guraso ia guztiek gertutasunarekin eta konfiantzarekin lotu dute hitanoa.

Ikerketaren ardatz diren gazteetan zentratuz, seme-alabekin hitanoa erabiltzen duten galdetu zaie gurasoei. 6.taulan ikus daitezke lorturiko erantzunak:

## 6 taula

*Seme-alabekin hitanoa erabiltzen duten galdetzean gurasoek emaniko erantzunak (%)*

| Hitanoa erabili |       | Bai  | Ez    | Batzuetan | Ez daukat seme/alaba |
|-----------------|-------|------|-------|-----------|----------------------|
| 1. haurra       | Alaba | -    | 28,57 | 28,57     | 42,86                |
|                 | Semea | 7,14 | 42,85 | 28,57     | 21,44                |
| 2. haurra       | Alaba | -    | 35,71 | 21,42     | 42,87                |

|           |       |      |       |       |       |
|-----------|-------|------|-------|-------|-------|
|           | Semea | -    | 35,71 | 28,57 | 35,72 |
|           | Alaba | -    | 21,42 | 14,28 | 64,30 |
| 3. haurra | Semea | 7,14 | 28,57 | 14,28 | 50,01 |

6. taulan ikus daitekeen moduan baiezeko erantzunak urriak izan dira, lehenengo eta hirugarren semeetan eta oso ehuneko baxuetan agertu dira (%7,14). Hitanoa seme-alabekin ez erabiltzea izan da kasu guztietan ehuneko altuenak lortu dituen aukera, hala ere, esan beharra dago hitanoaren tartekako erabileran lortutako emaitzak ere aipagarriak izan direla, kasu guztietan erabiltzen baitute gutxiago edo gehiago hitanoa izan semearekin edo alabarekin, nahiko parekatuta.

Aurreko erantzunei dagokienean, hitanoa seme-alabekin erabiltzen duten gurasoei zergatia galdetu zaie. Gehiengoak, zehazki esanda %85,7k, hitanoa naturalki irteten zaielako erabiltzen dutela aipatu dute, atzetik %28,6k seme-alabek ikastea nahiko luketelako erabiltzen dutela arrazoitu dute, eta azkenik, ohitura, tradizioari eustea edo hitanoa galtzerik nahi ez izatea, bakoitza %14,3k aipatu dute.

Hitanoa seme-alabekin tarteka erabiltzen duten gurasoen artean, gehiengoak txantxetan erabiltzen duela esan du (%62,5). Kopuru txikiagoan izan arren, errieta egiteko, jolasteko edota bestelako elkarrizketetarako erabiltzen duela ere adierazi duenik ere izan da (bakoitza %25).

Ezezko erantzuna eman dutenen artean ere naturalki irteten zaiena erabiltzea izan da erantzun ugariena, kasu honetan ordea, aurkako esanahiarekin, %60k seme-alabei hika hitz egitea ez zaiela irteten adierazi baitu. Izan alde batera edo bestera pentsatu gabe irteten zaiena erabiltzen dela azpimarratzen da, hori argi ikus daiteke guraso batengandik jasoriko erantzunean:

Hitanoa erabiltzea normaltasunez, (juzgatu gabe) , norberari ateratzen zaio. Nehi batzuk hitanoaz hitzegiten didate eta aldi berean nehi etzait ateratzen ta beste batzutan alderantziz. [2G]

Noski, ez da izan agerturiko proposamen bakarra, erantzunen artean kopuru txikiagoan baina parekatuta (%20) agertu baitira zatarra eta zakarra izatea, haurrak txikiegiak izatea edo ez jakitea.

Gurasoek seme-alabekin egiten duten erabileraren beste aldean, seme-alabek eurei egiten dieten moduaren inguruan ere galdetu diegu. Kasu honetan gehienak seme-alabek hika ez



dietela egiten erantzun dutenak izan dira, lehenengo eta hirugarren seme-alabetan soilik erantzun baitute “batzuetan” (%7,14) zuzentzen zaizkiela hika. Erantzun horien artean gurasoen %50ek seme-alabek beraiei hika egitea gustuko duela adierazi du, aldiz aurkako aldean %50ek ez du gustuko. Seme-alabek hika egiten ez dietenen kasuan berriz, gurasoen %50ek ez du nahi seme-alabak beraiei hika zuzentzerik eta %41,7k hika egitea nahiko lukeela adierazi du (izan semea izan alaba). Beraiei hika semeak soilik egitea nahiko lukeela adierazi duenik ere izan da, zehazki esanda %8,3.

Behin guraso eta seme-alaben arteko hitano ohiturak ezagututa, haurren hitanoaren erabileraren pertzepzioen inguruan galdetu zaie gurasoei, zehazki esanda seme-alabek hitanoa erabiltzea gustuko duten edo ez. Ondorengo 7. taulan ikus daitekeen moduan, galdera honen aurrean orokorrean baiezeko erantzuna da gailendu dena.

## 7 taula

*Seme-alabek hitanoa erabiltzea gustuko duten galdetzean gurasoek emaniko erantzunak (%)*

| Hitanoaren erabilera gustuko |       | Bai    | Ez    |
|------------------------------|-------|--------|-------|
| 1. haurra                    | Alaba | 100,00 | -     |
|                              | Semea | 100,00 | -     |
| 2. haurra                    | Alaba | 42,85  | -     |
|                              | Semea | 54,54  | 18,18 |
| 3. haurra                    | Alaba | 25,00  | 12,50 |
|                              | Semea | 44,44  | -     |

Seme-alaba zaharrenen kasuan, hitanoa erabiltzearen aldeko jarrera nabarmen handiagoa erakutsi dute gurasoek. Gazteagoen kasuan ordea aldatu egiten da, hitanoaren jarrera orokorra jaisteaz gain, seme-alaben arteko desberdintasuna areagotuz, mutilek hitanoa erabiltzearekiko jarrera positiboagoa erakutsi baitute neskek hitanoa erabiltzearekiko baino.

Baiezkoa erantzun dutenei zergatia galdetuta, gurasoen %45,45ek gustuko duela arrazoitu du. Gurasoen arteko %27,27 izan da seme-alabei naturalki irteten zaien tratamendua izatea eta euskarari dagokionean hitanoak haurrei eskaintzen dien aberastasuna adierazi duena; beste

%18,18k aipatu du hitanoak konfiantzarekin duen lotura. Galdera irekietan jasotako erantzunen artean honako hau azpimarratuko genuke: “Naturalki ateratzen zaion gauza delako, gurengatik ez du ikasi eta” [3G].

Hitanoa erabiltzen ez duten seme-alabak dituzten guraso guztiek euren haurrek hitanoa erabiltzea gustatuko litzaikeela erantzun dute, hori argi ikusten da ondorengo erantzunean, nahiz eta semeek soilik egiten dien erreferentzia: “Nire semeek ez dute egiten eta gustatuko litzaidake egingo balute” [6G].

Gurasoen eta seme-alaben hitanoaren erabilerari dagokionean, erabilera nahiko urria dela ikusi da, baina batez ere alabez hitz egiten denean, orokorrean semeetan erabilera handiagoa baita izan semeek zuzentzerako momentuan izan euren gainetik jasotzen dutenari dagokionean. Dena delakoa izan erabilera, gehiengoak hitanoa naturalki ateratzen zaionarekin lotzen du, hau da, seme-alabek hitanoa erabili edo ez, pentsatu gabe, naturalki irteten zaien tratamendua erabiltzea da gurasoek azpimarratzen dutena. Aipatu moduan, mutikoekiko jarrera positiboagoa erakutsi bada ere, esan beharra dago bai seme eta bai alaben hitanoaren erabilerarekiko pentsamendu positiboak dituztela orokorrean.

#### **4. Ikerketa-galdera: Irakasleek zer pertzepzio dute ikasleek duten hitanoaren erabileraren inguruan?**

Irakasleek ikasleen hitanoaren erabileraren inguruan duten pertzepzioa ezagutzeko, irakasleei bideratutako galdetegian jasotako erantzunez baliatu gara.

Lehendabizi, aipatzekoa da galdetegia erantzun duten irakasleen artean hitanoa erabiltzen ez duten irakasleen kopurua handiagoa dela erabiltzen dutenena baino, izan ere irakasleen %66,7k adierazi du ez duela hitanoa erabiltzen, aldiz %33,3k erabiltzen duela. Hitanoa erabiltzen ez dutenen artean %75ek arrazoi gisa hitanoa ez jakitea aipatu du, aldiz %25ek arraro sentitzen dela adierazi du. Ehuneko horiek esaten dutena argi eta garbi islatzen da irakasle honen aipamenean: “Hitanoa gehiago erabiliko nuke fundamentuz jakinez gero, askotan elkarriketak hasten ditut jendearekin hika baina ez naiz gai elkarriketa amaitzeko” [4I]. Hitanoa erabiltzen duten irakasleen artean berriz, ohitura, militantzia, gertutasuna edo konfiantza, hitanoa gustatzea eta naturalki irtetea aipatu dituzte arrazoi gisa.

Hitanoa norekin erabiltzen duten galdetxean erantzunak askotarikoak izan dira, baina ikerketa gaian zentratuta, ikasleekin egiten duten erabilerarekin lotuz, maila parekatuan, irakasleen %16,7k ikasle neskekin hitanoa erabiltzen duela adierazi du eta beste %16,7k ikasle mutilekin hitanoa erabiltzen duela adierazi du.

Irakasleek ikasleekin hitanoa erabiltzen ote duten eta horrela denean noiz erabiltzen duten ere galdetu zaie. Irakasleen %66,7k ikasleei ez diela hika hitz egiten adierazi du, aldiz, irakasleen %33,3k batzuetan ikasle mutilei zuzentzeko erabiltzen du hika eta beste %16,7k batzuetan ikasle neskei zuzentzeko. Hika erabiltzen duten irakasleek, ikasleek hika ikastea nahi izatea, eta beraiek (ikasleek) horrela hitz egiten dutela arrazoitu dute, hori bai, beti ere ingurune ez-formalean (txantxetan ari direnean, jolasterakoan edota jolas-orduko bestelako elkarrizketetan). Ezezko erantzuna eman duten irakasleen artean %66,7k lagunarteko tratamendua dela eta ez eremu formalekoa arrazoitu du, aldiz %33,3rekin parekatuta beste irakasle batzuk ez zaiela ikasleekin hitanoa erabiltzea irteten edota ez dakitela arrazoitu dute.

Bestalde, ikasleengandik hitanoa jasotzen al duten galdetzean, irakasleen %50ek ikasleek ez dietela hika hitz egiten adierazi dute, aldiz beste %50 izan da ikasle mutil batzuk hika zuzentzen zaizkiela esan duena eta %16,7 ikasle neska batzuk hika hitz egiten diela esan duena.

Ikasleengandik hitanoa jasotzen duten irakasleen artean, izan ikasle neskak zein mutilak, %66,66k gustuko duela adierazi du.

Ikasleek hika hitz egiten ez dieten irakasleetan aldiz, bai ikasle neska eta bai ikasle mutilen kasuan, erantzun parekatuak lortu dira, izan ere bi kasuetan irakasleen %33,33ri gustatuko litzaioke ikasleek berari hika egitea, beste %33,33k ez luke nahiko eta azkenik beste %33,33k ez daki nahiko lukeen.

Ikasle-irakasle harremaneko hitanoaren erabilera alde batera utzita, ikasleek euren artean hitanoa erabiltzea gustatzen ote zaien ere galdetu zaie. Erantzunek erakutsi dutenez, izan ikasle neskak zein mutilak, gustuko dutela erantzun dute. Horren arrazoi gisa pentsatu gabe erabiltzea eta polita izatea aipatu dituzte, hala ere, bada klase orduetan formalago hitz egin beharko luketela aipatzen duenik.

Hitanoa erabiltzen ez duten ikasleen kasuan berriz, izan ikasle neskak zein mutilak, irakasleen %66,7k adierazi du gustatuko litzaiekeela ikasle horiek hitanoa erabiltzea, aldiz beste %3,3k ez zaiola axola erantzun du.

Hitanoa zer balore eta ezaugarriekin lotzen duten ere galdetu zaie irakasleei. Irakasleen arteko %66,7k lotu du bai gertutasunarekin edo konfiantzarekin eta bai tradizioarekin. Euskaldunagoa izatea ere aipatu dute (%33,33) eta azkenik atsegina eta arbasoena izatea ere bai (%16,7).

Ikasle-irakasleen harremana eta hitanoaren arteko lotura eginez, irakasleen artean ikasleei hika egitearen edo ez egitearen inguruan inoiz hitz egin duten galdetu zaie eta irakasle guztiek

erantzun bera eman dute, ezezkoa. Hala ere, irakasleen %20k gai honi buruz gehiago hitz egitea ez dela beharrezkoa uste duten arren, %80k gehiago hitz egin beharko litzatekeela dio. Horrekin lotuta, gurasoen galdetegian ere jaso da aipamenik, gurasoetako batek, eskoletan gehiago landu beharreko gai bat dela adierazi baitu: “Eskoletan erakutsi beharreko hizkera bat dela iruditzen zait” [4G].

Irakasleen gehiengoak ez du hitanoarekin lotura esturik erakutsi. Euren erabileratik hasita, nabaria da gutxi batzuk soilik direla hitanoa egunerokotasunean erabiltzen dutenak, hori dela eta, eskolan ere ikasle-irakasle harremanean hitanoaren presentzia urria da. Irakasleek gai honen lanketa euren “zeregina” izatearen inguruan ere diferentziak agertu dira nahiz eta gehiengoak eztabaidatu eta landu beharreko gai bat dela aitortu duen. Hala ere, ikusi da ikasleen arteko erabilerarekiko jarrera oso positiboak badituzte ere, zalantza gehiago daudela ikasle-irakasle harremanean erabiltzeko tratamendu hau egokia ote denaren inguruan.

## 4. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Emaitzen atalean bezala, atal honetako edukiak, ikerketaren oinarri diren 4 ikerketa-galderen arabera antolaturik aurkeztuko dira ondorengo orrialdeetan.

### 1. Ikerketa-galdera: Zein ezaugarri dauzka hitanoaren hastapenak arnasmune bateko haurren kasuan?

Lehenik eta behin, esan beharra dago ez dugula ezagutzen fenomeno hau berariaz aztertzen duen lanik. Horren ondorioz, ezinezkoa egiten zaigu gure ikerketan lortutako emaitzak aurrez beste ikerketa batzuk erakutsi dutenarekin alderatzea.

Hala eta guztiz ere, hitanoaren hastapenak zerikusi zuzena daukate hizkuntzen transmisioarekin eta horri egingo diogu erreferentzia. Atal teorikoan ikusi dugunez, hitanoan eginiko lehen pausoen eragile nagusia, goitik beherako transmisioa dela pentsatu izan da beti, are gehiago, etxeko transmisio bertikala beharrezkoa dela uste izan da gurasoengandik hitanoa jaso dutenetan hitanorako joera handiagoa ikusten baita, nahiz eta salbuespenak ere egon zenbait mutilen kasuan esaterako (Muguruza eta Bereziartua, 2020). Hala ere, Alberdi-Zumetak (2019) esan moduan, hitanoa etxean jaso ez dutenen artean badira tratamendu hau erabiltzen dutenak, beraz, Legorbururen (2018) hitzekin bat etorritik, familiaz gain dauden harremanek ere hitanoaren erabileran zerikusia dute. Ikerketa honen bidez lortutako emaitzetan ordea, argi ikusi da etxeetako hitanoaren presentzia oso urria izan arren ikasleek hika erabiltzen dutela, beraz, goitik beherako transmisioaz gain kideen artekoa ere kontuan hartzekoa da.

Gaur egun haurrek parekoekin ikasten dute hitanoa, hartzaile gisa ez ezik hitano ezagutzaren igoerle gisa ere jokatu. Egunerokotasunean dituzten interakzioetan, erabiltzen dute hitanoa, akatsak akats praktikatzeko baita garrantzitsua, izan ere, horixe da ikasteko modurik onena, erabiltzea. Hizkuntza berri bat ikastea gertatzen den bezala, hitanoaren kasuan ere, arau linguistikoak ezagutzea beharrezkoa da baina, ahozko gaitasuna garatzeko, erabiltzea da garrantzitsuenak, modu honetan, erabileratik nahiz akatsetatik ikastea lortuko baita. Nahiz eta gaur egun transmisioa ez izan goitik beherakoa, gazteei esker jarraitzen du hitanoak bizirik, euren artean erabiliz ikasten baitute. Gauzak horrela esan daiteke, hitanoa, lagunartean, ingurukoengandik jasotako informazioarekin ikastea dela ohikoena, transmisio horizontala bertikalari gailenduz.

### 2. Ikerketa-galdera: Generoen artean zer desberdintasun dago hitanoaren erabileraren abiapuntuari dagokionean?

Atal teorikoan azalduko ikerketa ezberdinetan behin eta berriro errepikatu da gizonezko eta emakumezkoen hitano ohituren artean dagoen desberdintasuna. Aurreko atalean aipatu dugunez, izan neska edo mutila, hitanoaren etxeko transmisio bertikala urria da kasu gehienetan, beraz non dago ezberdintasuna? Aipaturiko transmisio horizontalean. Hori, Alberdi-Zumetak (2019) azalduko genero arauen ondorioa izan daiteke, izan ere, duela urte batzuk noka emakumearekin batera etxean geratu zen bitartean, tokak gizonezkoekin kalean indarra hartu zuen eta horren eragina gaur egun oraindik nabaria da.

Legorburuk (2018) adierazi moduan toka kalean mantentzeak erraztu egiten du mutilek hitanorako jauzia ematea, aldiz, nesken kasuan ez da horrelakorik gertatzen. Ikerketan lortutako emaitzek, bide berean jarraitu dute, genero maskulinoan hitanoaren erabilera altuagoa dela ikusi baita. Gutxiago edo gehiago, ikerketan parte harturiko ia mutil guztiek erabiltzen dute hitanoa euren egunerokotasunean, aldiz nesken kasuan aurkakoa gertatzen da, ia inork ez baitu hitanoa erabiltzen nahiz eta erabiltzeko nahia erakusten duten. Esan daiteke gaur egun generoen artean dagoen arrakala honen eragile nagusia erreferente falta dela, izan ere mutilen kasuan ez bezala, hitanoa kalean ia ez da entzuten emakumezkoen ahotan, eta are gutxiago neska gazteen ahotan. Egoera honek hitanoa haurrentzat, eta batez ere neskentzat arrotza izatea ekartzen du, ia ez ezagutzeko punturaino, izan ere oraindik hitanoaren oinarria ezagutzen badute ere, noka ia ezezaguna zaie, eta horrela jarraituz gero, nokaren existentzia ez ezagutzea izango da hurrengo pausua, txikitatik lantzen hasten ez den bitartean hobekuntzak nekez lortuko baitira.

Ozaitak (2014) esaten duenez, hitanoari dagokionean bi ibilbide ezberdin daude, bata A ibilbidea, naturala dena eta bestea B ibilbidea, kulturala dena. Ikerketan parte harturiko hitano hiztunak (guztiak mutilak) oharkabean egin dute hitanorako jauzia, modu naturalean, beraz, esan daiteke A ibilbidearen parte direla. Ezin da Ozaitak (2014) aipaturiko 0 taldea ere ahaztu, hitanoa ezagutu nahiz esperimentatzeko aukerarik izan ez dutenak izendatzeko erabili zuena, hain zuzen ere. Ikerketan lortutako emaitzen arabera, batez ere neskak kokatuko lirateke talde horretan, inork ez baitu hitanorako jauzirik egin oraindik.

Nesketan ez da hitanoarekiko hurbiltasunik nabaritzen; nahiz eta egunero entzun hika lagun mutilen ahotan, arrotza egiten zaien zerbait dela nabaritzen da, euren kontua ez den zerbait bezala. Egia da, zenbait ikasle neskarengandik jasotako erantzunetan etorkizunean hitanoa erabiltzeko nahia eta gogoia ikusi dela, baina hori, Alberdi-Zumetak (2019) esan bezala, aurrez pentsatu eta erabaki ondoren, aurrerago eman beharreko pausua dela sentitzen da, eta ez

mutilen kasuan bezala modu naturalean eta Lehen Hezkuntzako urteetan zehar eman beharrekoa.

Jauzi hori ematea ez da erraza, batez ere, oraindik hitanoa ingurune edota giza-talde jakin batzuekin lotzen dela ikusita, batez ere maskulinitatearekin lotura dutenak. Alde batetik, Alberdi-Zumetak (2019) azaldu bezala, baserritartasunarekin lotzen da. Horrek generoarekin lotura zuzena du, baserritartasuna, baserritarren ikuspegi tradizional eta maskulinoarekin lotzen baita batez ere, horrela, hitanoa erabiltzen duena gizonezko zakar eta inozoaren estereotipoarekin lotuz. Ikerketan lortutako emaitzek ere gauza bera erakutsi digute, ikasleetako batek argi eta garbi adierazi baitu hitanoa ikasteko nahia, baserritar munduarekin sentitzen zuen erlazio estuarekin lotura eginez.

Estereotipoekin jarraituz, baina kasu honetan alderdi positiboago batetik begiratuta, Muguruzak, Bereziartuak eta Etxeberriak (2020) azaldu moduan, hitanoa umorearekin ere erlazionatzen da, noski hori ere mutilekin erlazionatuta. Gure ikerketan zehar ere, uste honen aldeko zantzuak aurkitu ditugu, hitanoaren erabileraren inguruan lortutako erantzunetan, tratamendu hori txantxetarako erabiltzen dela errepikatu baita. Bai baserritartasunak, baita umoreak ere sortzen duten bideari jarraituz, hitano erabiltzaileen taldea asko murrizten da, genero maskulinoari lotzea ez ezik, beste estereotipo zehatz batzuetara mugatzen baita, hau da, baserritar izatera edota umore ezaugarriak dituzten testuinguruetara. Estereotipo horiek gainditzea ezinbestekoa da hitanoaren biziraupenerako, ez baita beharrezkoa baserritarra izatea hitanoa erabiltzeko, ez eta hitanoa erabiltzea ere baserritarra izateko.

Belaunaldiz-belaunaldi hitanoarekin lotu diren estereotipo guzti horiek gainditu behar dira hitanoaren aberastasuna lortu nahi bada, hitanoa beste begirada batekin ikusi behar da. Izan neska edo mutila, izan baserritarra edo kalekoa, tratamendu hau talde nahiz testuinguru guztietarako erabilgarria dela argi izan behar da, barneraturiko ideia oker guztiak ezabatuz. Horrekin ordea, pertsonen ideia eta pentsaeretan sartzen gara eta horiek aldatzeak, inplikazioa eta lanketa pertsonal sakona egitea eskatzen du. Hori ez da batere erraza hitanoarekiko interesik ez duen jende ugari dagoela kontuan izanda eta, beraz, beharrezkoa den baina aldi berean luzea eta korapilatsua izango den aldaketa prozesu baten aurrean aurkitzen gara.

### **3. Ikerketa-galdera: Gurasoek zer pertzepzio dute seme-alabek duten hitanoaren erabileraren inguruan?**

Alberdi-Larizgoitiak (1993) dioenez, familiartean haurrekin egiten den hitanoaren erabilera, 6-10 urte inguruan hasten da, haurrak koskortzen hasten direnean aldatzen baita komunikaziorako

tratamenduaren erabilera. Ikerketan lortutako emaitzei erreparatuta seme-alaba eta gurasoen arteko hitanoaren erabilera adin horretan hasten dela baieztatu daiteke, hala ere, zehatzago izanda, argi ikusten da 8-10 adinean egiten dela gorakada nabaria. Familiarteko erabilera ordea, oso urria da, gutxiengo bat baita hitanoa erabiltzen duena.

Horrek Alberdi-Zumetak (2019) esanikoarekin lotura zuzena du, gazteen pertzepzioaren arabera, guraso askok errespetu faltatzat hartzen dute eurei hika egitea. Ikerketan gurasoek seme-alabek hitanoa erabiltzea gustuko dutela ikusi den arren, eurekin hitanoa erabiltzeari dagokionean iritzi ezberdinak erakutsi dituzte. Gurasoek hitanoa gertutasunarekin eta konfiantzarekin lotzen dute, baina batez ere lagunarteko testuinguruan, familiarteko guraso/seme-alaba harremanetan hitanoaren erabilerarekiko ikuspegia aldatu egiten baita. Testuinguru horretarako hitanoa tratamendu egokia ez den sentipena dago. Ez da duela urte batzuk ikus zitekeen errespetu falta gaur egun sentitzen dena, baina oraindik ere komunikazioan deserosotasunak sortzen ditu.

Guraso askok erakutsi du haurren artean hitanoa sustatzeko nahia, baina oraindik gutxiengoa da horretan parte-hartze zuzena egiten duena. Ez da erraza haurrak hitanoa erabiltzen hastea, batez ere, hitanoa testuinguru ezberdinetan erabiltzeko eredurik ez badute. Umeek, ikusten dutena errepikatzen dute, ondorioz, inguruan duten horretatik abiatuta ikasten dute. Hitanoarekin ere gauza bera gertatzen da, haurrek hitanoa ikasi eta erabiltzeko erreferenteak edukitzea ezinbestekoa da, eta behin eta berriro errepikatu bezala gaur egun gutxi dira haurrek hitanoa entzuten duten ingurune eta momentuak. Seme-alabengan hitanoaren erabilera bultzatu nahi bada, etxean eredu hori izatea garrantzitsua da, tratamendu hori txikitatik normaltzat hartu eta egunerokotasunean erabiltzeko. Gaur egun, helduen nahiak alde batera utzita, haurren ongizateari eta askatasunari ematen zaio garrantzia, inguruko helduen gustuetatik haratago, hizkuntzari dagokionean bakoitzak nahi duen bidea jarraitzeko askatasuna eskainiz. Hitanoaren erabilera bultzatzeko bide egokia izan daiteke hau, seme-alabei nahi duten bidea hautatzeko askatasuna ematea, baina noski, dituzten aukera guztien eredia eman behar zaie, izan ere, hitanoa hiztun erreferenterik ez badute, euren erabakia ez da askatasunean oinarrituko, ezjakintasunean baizik.

#### **4. Ikerketa-galdera: Irakasleek zer pertzepzio dute ikasleek duten hitanoaren erabileraren inguruan?**

Emaitzek erakutsi dutenez, guraso/seme-alaba harremanean ez ezik, irakasle/ikasle harremanean ere hitanoaren erabileran iritzi ezberdinak ikusten dira. Badira ikasleetan hitanoa



bultzatu nahi duten irakasleak baina baita hitanoa euren zereginetatik at ikusten duten irakasleak ere.

Hezkuntzari dagokionean, Ozaitak (2014) azaldu zuen moduan, hitanoak presentzia urria du, garrantzi handiegirik gabe eta denbora oso laburrean lantzen den arloa baita. Ikerketan ere ikusi da hitanoa irakaskuntzatik at geratzen den arlo bat den ustea, ondorioz, esan daiteke hika hezkuntzatik kanpo geratzen dela, izan ere irakasleek ez dute arlo hori bere sentitzen. Derrigorrezko bigarren hezkuntzara arte ia ez da hitanoa lantzen, eta hori nabaria da ikasleen artean. Euren erreferente diren helduekin ez dute esperientzia esanguratsurik izateko aukerarik izan, ondorioz aisialdian erabiltzen dute hitanoa.

Elortzak (2021) esan bezala, hizkuntza bat ikasteko ez ezik, hitanoa ikasteko ere garrantzitsua da ikasleek input-a jasotzea, eta hori zenbat eta txikiagotik jaso hobeto barneratuko dute tratamendu berria. Tratamendu honen erabilera testuinguru eta talde ezberdinetara zabaltzeko, ikasleei txikitatik hitanoa hurbileko sentiarazi eta euren egunerokotasunean txertatzea ezinbestekoa da. Hitanoak etorkizuna izatea lortu nahi bada, beharrezkoa da irakasleen inplikazioa, irakasleak baitira haurrei hitanorako bidea ireki diezaieketenak, baina hori lortzea ez da batere erraza irakasleen artean transmisio horrekiko iritzi ezberdinak dauden momentutik. Hitanoa eta hezkuntzaren arteko lotura horrek, irakasle bakoitzak eremu pertsonalean hitanoarekin duen loturarekin erlazio estua du, izan ere, egunerokotasunean behar ez bada, zaila da irakasleak eskolan hitanoaren kontua mahai gainean jartzeko beharra sentitzea, edota ulertzea. Ikerketan ikusi denez, zenbaitentzat oso garrantzitsua da hau txikitatik lantzen hastea, egoera “normalizatu” baterako bidea hartu eta ikasle guztietara heltzeko. Bide horretatik badira eskoletan hitanoa erabiltzen hasteko prestaturiko esku-hartzeak, baina horiek eraginkorrak izateko, ezinbestekoa da alde batetik irakasleen inplikazioa eta jarrera positiboa izatea eta bestetik, noski, hitanoaren ezagutza izatea. Horrekin ordea, Ozaitak (2014) plazaratu zuen beste gai batekin elkartzen gara, irakasleen aldetik hitanoa lantzeko ikusten den gogo falta, agian euren hitanoa arrotz egitearen ondorio.

Gaur egun hitanoak duen egoera kontuan hartuta eta hitanoa batez ere gune eta testuinguru batzuetara mugatuta egonda, jakina da irakasleen artean ere, hitanoa hiztunak urriak direla. Hori dela eta, gaur egungo irakasleak, izan gazteak izan helduagoak, horrelako erronka bati aurre egiteko prest ote dauden zalantzan jartzea ez da arraroa. Hitanoa irakasteak, irakasleen aldetik inplikazio handia eskatzen du, tratamendu hau egunerokotasunean ikasgelan sartzeko lanketa handia egin behar baita. Horrek, alde batetik, irakasleak hitanoarekiko ezagutza izatea eskatzen du, baina teorikoa baino gehiago praktikoa, hau da, ahozko erabilerarako ezagutza. Horretarako

garrantzitsua da praktika eta esan bezala, hitano erabilera urria den inguruneak ugari direla kontuan izanda, posible da irakasle gutxi izatea horretarako nahikoa ezagutza dutenak. Beste aldetik, arlo honen inguruan Lehen Hezkuntzan eginiko lanketa mugatua dela kontuan izanik, irakasleek hitanoa egunerokotasunean modu egokian barneratu ahal izateko lan handia egin behar da, eta horrek denbora asko eskatzen du, ziurrenik materialen prestaketarako dituzten orduak nahikoa ez izanik.

Izan ezagutza aldetik, izan denbora nahiz baliabide materialen aldetik, zailtasun ugari dakartza hitanoa hezkuntzan barneratzeko saiakera egiteak, beraz, ez da irakasle batek bakarrik egin dezakeen zerbait, komunitate guztiak bat eginik aurrera eraman beharreko proiektu bat baizik. Horrela soilik izango da posible etorkizunean hitanoa hezkuntzan modu normalizatuan izatea, hezkuntza komunitate guztiaren artean lan eginez, gaur egun irakasleen artean dagoen formazio nahiz ikuspegia aldatuta.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi-Larizgoitia, X. (1993). Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak. *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 425-442.
- Alberdi-Larizgoitia, X. (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera*, 39, 983-993.
- Alberdi-Zumeta, L. (2019). Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak. *BAT Soziolintusitika Aldizkaria*, 113, 129-154. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/eta-hik-ze-uste-dun-k-azpeitiko-gazteak-hitanoaren-inguruan-hizketan-usteak-balioak-eta-diskurtsoak/>
- Altuna, O. eta Basurto, A. (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Network to promote Linguistic diversity eta Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/gida-eusk.pdf>
- Amiano, I. (2016). Komikia hitanoaren i(ra)kaskuntzarako baliabide: Azpeitiko hitanoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan [Master Amaierako Lana, UPV/EHU]. [https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41\\_5352692ef77a4da687ae724a30be29e8.pdf](https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41_5352692ef77a4da687ae724a30be29e8.pdf)
- Azkue, X. (2009). Zumaian hitanoa bultzatzeko egitasmoa. Erabilera eta transmisioa giltzarri. [Graduondo Amaierako Lana, UPV/EHU] [https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/xabier\\_azkue.pdf](https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/xabier_azkue.pdf)
- Barquín, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*, Emakunde. [https://www.ehu.eus/documents/1734204/1884196/Euskararen\\_erabilera\\_ez-sexista.pdf](https://www.ehu.eus/documents/1734204/1884196/Euskararen_erabilera_ez-sexista.pdf)
- Beitia, I. (2017). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 103, 139-166. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/tokanoka-tribua-eskoriatzako-gazteak-eta-hitanoa-uste-balore-eta-jarrerak/>
- Bereziartua, G. eta Muguruza, B. (2021). Hizkuntza-tratamenduak Dragoi Bolan: hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna. *Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta*, 132, 319-348. [https://www.culturanaavarra.es/uploads/files/FLV132\\_03.pdf](https://www.culturanaavarra.es/uploads/files/FLV132_03.pdf)

- Elortza, A. (2021). *Hitanoa haur hezkuntzan* [Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU].  
[https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41\\_42b80075edbc42db8ed07dbb7c329a12.pdf](https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41_42b80075edbc42db8ed07dbb7c329a12.pdf)
- Eustat. (2021). *Gipuzkoako biztanleria barruti eta zentsu-sekzioen arabera, sexuaren, adin-taldean eta naziotasunaren arabera*. Euskal Estatistika Erakundea.  
[https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/gipuzkoako-biztanleria-barruti-eta-zentsu-sekzioen-arabera-sexuaren-adin-taldean-eta-naziotasunaren-arabera/tbl0011434\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/gipuzkoako-biztanleria-barruti-eta-zentsu-sekzioen-arabera-sexuaren-adin-taldean-eta-naziotasunaren-arabera/tbl0011434_e.html)
- Eustat. (2018). *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera*. 2016. Euskal Estatistika Erakundea.  
[https://eu.eustat.eus/elementos/ele0014600/euskal-aeko-2-urteko-eta-gehiagoko-biztanleria-lurralde-eremuaren-eta-euskara-maila-orokorraren-arabera/tbl0014687\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/ele0014600/euskal-aeko-2-urteko-eta-gehiagoko-biztanleria-lurralde-eremuaren-eta-euskara-maila-orokorraren-arabera/tbl0014687_e.html)
- Gurrutxaga, I. (2018). *"To eta no". Azpeitian hitanoa lantzeko material didaktikoa*. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU].  
[https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41\\_c4f3c97bbd0648298391675f30d51c5b.pdf](https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41_c4f3c97bbd0648298391675f30d51c5b.pdf)
- Imaz, A. (2018). *Hitanoaren erabilera Seguran: proposamen didaktikoa* [Graduondo Amaierako Lana, UPV/EHU].  
[https://www.hitanoaz.eus/\\_files/ugd/9bbd41\\_9d481d721c7f4eb4b8133c4d4fa8f4e3.pdf](https://www.hitanoaz.eus/_files/ugd/9bbd41_9d481d721c7f4eb4b8133c4d4fa8f4e3.pdf)
- Juaristi, P. (2003). Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak. UPV/EHUko argitalpen zerbitzua. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15493>
- Legorburu, O. (2018). Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 109, 111-138.  
<https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/bat-109-2018-4-genero-rolek-hitanoaren-erabileran-izan-duten-eragina-antzuolako-herritarren-diskurtso-eta-praktikak/>
- Martínez de Luna, I., Suberbiola, P. eta Basurto, A. (2009). *ARRUE programa. Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileraren azterketa*. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. <https://www.euskadi.eus/web01->

[a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HN\\_oPortal=true&N\\_LIBR=046776&N\\_EDIC=0001&C\\_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf](https://a2aznscp/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HN_oPortal=true&N_LIBR=046776&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf)

Muguruza, B., Bereziartua, G. eta Etxeberria J. (2020). "Ez da mattetzen erakutsi" Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala. *Uztaro*, 115, 117-143.

Muguruza, B. eta Bereziartua, G. (2020). Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azpeitiko hiru belaunaldiren azterketa. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde eta K. Ulibarri (Arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre* (545-564 or.). Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Ozaita, J. (2014). Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 91., 83-103.  
<https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/hurbilpen-bat-tolosaldeko-gazteek-hitanoari-buruz-duten-pertzepzio-diskurtso-eta-praktikara/>

Zabala, U. (2021). *Hitanoa biziberrituz ikasleen ahotan. "Kantu kantari, bai hi eta bai ni!"* [Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU].  
[https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41\\_89bdee52ea2341e2a930fac5c7b3b454.pdf](https://www.hitanoaz.eus/files/ugd/9bbd41_89bdee52ea2341e2a930fac5c7b3b454.pdf)

## 6. ERANSKINAK

### 6.1. ELKARRIZKETA IKASLEAK

#### *DATU OROKORRAK*

1. Maila:
2. Generoa:
3. Jaiolekua:
4. Baserrian bizi zara edo kalean?

#### *HITANOAREN INPUT-A*

5. Inguruan hika entzuten al duzu inor? Hala bada,

- Nor?
- Norekin?

6. Norbaitek hika egiten al dizu?

BAIEZKOA BADA:

- Nork?
  - i. Emakumezkorik bai?
  - ii. Gizonezkorik?
- Noiz hitz egiten dizute hika? Beti, haserre daudenean, jolasean ari direnean...
- Gustatzen al zaizu hika hitz egitea? Zergatik gustatzen zaizu?

EZEZKOA BADA:

- Gustatzen al zaizu hika entzutea? Zergatik?
- Gustatuko al litzaizuke norbaitek hika egitea? Zergatik?
  - i. Baiezkoa bada, nork?

7. Zuk nola hitz egiten duzu gehienetan? Hika, zuka...

8. Hitanoa erabiltzen ez badu:

- Zergatik ez duzu hitz egiten hika?
- Gustatuko al litzaizuke zuk hitanoa erabiltzea?

9. Hika erabiltzen badu:

#### *HASTAPENA*

- Gogoratzen al duzu hika egiten noiz hasi zinen?
- Norekin hasi zinen?
- Zergatik hasi zinen hika erabiltzen?

- Norbaitekin egiten al duzu hika orain? Norekin?
  - i. Nola egiten diezu hika?
    - 1. Neskei bezala (noka)?
    - 2. Mutilei bezala (toka)?
- Zure adin inguruko norbaitek hika egiten badiozu nola erantzuten diozu (neskak, mutilak)?
- Lehen zuka egiten zizun norbait hasi al zaizu hika egiten?
  - i. Gustatzen al zaizu? Nola sentitzen zara horrekin?
  - ii. Lehen zuka egiten zizun lagunena bat hika hasi bazaizu, zuk nola erantzuten diozu?
- Lehen zuka egiten zenion lagunena bati hika egiten hasi al zara zu?
  - i. Zerbait esan al dizu aldaketa horren inguruan?
  - ii. Lagunak nola erantzun dizu?
  - iii. Nola sentiarazten zaitu horrek?
- Zuka egitetik hika egitera pasa zarenean inguruko norbaitek (lagunak, gurasoak, irakasleak, beste norbaitek...) zerbait esan al dizu?
- Zukatik hikarako pauso hori nola gertatu da? Beste norbaitekin hika hitz egitea erabakita? Ezer hitz egin gabe modu naturalean irten zaizu? Bat batean hika erabat erabiltzen hasita edota testuinguru/espresio jakin batzuetan soilik?
- Zure iritziz zer esango zenuke duela hitanoak zutanoak ez duena?
- Ba al duzu hika hitz egiten ez diozun norbait?
- Zergatik egiten diezu batzuei hika eta besteei ez? Nola erabakitzen duzu pertsona bati zuka ala hika egin?

## 6.2. GALDETEGIAK

### 6.2.1. GURASOENTZAKO GALDETEGIA

Generoa \*

- ☐ Emakumea
- ☐ Gizonezkoa
- ☐ Besterik

Bizilekua \*

- ☐ Bidania-Goiatz
- ☐ Inguruko auzo/herri txikiren bat
- ☐ Azpeitia
- ☐ Tolosa

Non bizi zara? \*

- ☐ Baserrian
- ☐ Kalean

Zenbat seme-alaba dituzu Bidania-Goiatzeko ikastetxean? \*

- ☐ 1
- ☐ 2
- ☐ 3
- ☐ Gehiago

### GURASOAK ETA HITANOAK

Hika hitz egiten al duzu? \*

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Baietz erantzun baduzu, zergatik egiten duzu hika? (Behar adina aukera markatu)

- ☐ Ohituragatik
- ☐ Militantziagatik (hitanoak bizirik iraun dezan beharrezkoa delako guk hitz egitea)
- ☐ Beste pertsonarekin gertutasuna edo konfiantza daukadala adierazten duelako
- ☐ Gustatu egiten zaidalako
- ☐ Naturalki irteten zaidalako
- ☐ Otro:

Ezetz erantzun baduzu, zergatik ez duzu egiten hika? (Behar adina erantzun markatu)

- ☐ Zatarra iruditzen zaidalako
- ☐ Zakarra iruditzen zaidalako



- ☐ Ez dakidalako
- ☐ Zaharkituta dagoela iruditzen zaidalako
- ☐ Ez dudalako hika hitz egiten duen beste inor inguruan
- ☐ Besteek ez didatelako hika hitzegiten
- ☐ Arraro sentitzen naizelako
- ☐ Otro:

Hitanoa norekin erabiltzen duzu? (Behar beste aukera markatu) \*

- ☐ Ez dut inorekin egiten hika
- ☐ Lagun emakumezkoekin
- ☐ Lagun gizonezkoekin
- ☐ Nebarekin/Anaiarekin
- ☐ Ahizparekin/Arrebarekin
- ☐ Lehengusuekin
- ☐ Bikotearekin
- ☐ Gurasoekin
- ☐ Koinatu/koinatekin
- ☐ Otro:

Zer baliorekin edo ezaugarriekin lotzen duzu hitanoa? (Behar adina aukera markatu) \*

- ☐ Gertutasuna, konfiantza
- ☐ Itsusia, zakarra
- ☐ Goxoa
- ☐ Zaharkitua
- ☐ Modernoa
- ☐ Arbasoena
- ☐ Euskaldunagoa
- ☐ Tradizionala
- ☐ Atsegina
- ☐ Otro:

### SEME-ALABAK ETA HITANOAK

Seme alabei hitz egiten al diezu hika? (Seme-alaba bat baino gehiago diren kasuan, jaiotzako ordena mantenduz, bakoitzaren erantzunak idatzi 1etik 3ra, 1 zaharrena izanik eta 3 gazteena) \*

|         | Bai | Ez | Batzuetan | Ez daukat |
|---------|-----|----|-----------|-----------|
| 1 Semea |     |    |           |           |
| 1 Alaba |     |    |           |           |

|         |  |  |  |  |
|---------|--|--|--|--|
| 2 Semea |  |  |  |  |
| 2 Alaba |  |  |  |  |
| 3 Semea |  |  |  |  |
| 3 Alaba |  |  |  |  |

Erantzuna bai edo batzuetan den kasuan, zergatik? (Behar adina erantzun markatu)

- ☐ Seme-alabek ikastea nahi dudalako
- ☐ Polita eta atsegina delako
- ☐ Ohituragatik
- ☐ Tradizioari eusteko
- ☐ Hitanoa ez galtzeko
- ☐ Naturalki irteten zaidalako
- ☐ Otro:

Erantzuna batzuetan den kasuan, noiz hitz egiten diozu? (Behar adina aukera markatu)

- ☐ Errieta egiterakoan
- ☐ Jolasterakoan
- ☐ Txantxetan
- ☐ Bestelako elkarrizketetan
- ☐ Otro:

Erantzuna ezezkoa den kasuan, zergatik? (Behar adina erantzun markatu)

- ☐ Zatarra eta zakarra delako haurrentzat
- ☐ Txikiegiak direlako
- ☐ Ez zaidalako gustatzen
- ☐ Ez dudalako hurrek hika ikastea nahi
- ☐ Ez zaidalako irteten seme-alabei hika hitz egitea
- ☐ Lagunartekoa delako eta ez familiartekoa
- ☐ Otro:

Zure seme-alabek zuri egiten al dizute hika? \*

|         | Bai | Ez | Batzuetan | Ez daukat |
|---------|-----|----|-----------|-----------|
| 1 Semea |     |    |           |           |

|         |  |  |  |  |
|---------|--|--|--|--|
| 1 Alaba |  |  |  |  |
| 2 Semea |  |  |  |  |
| 2 Alaba |  |  |  |  |
| 3 Semea |  |  |  |  |
| 3 Alaba |  |  |  |  |

Erantzuna baiezkoa den kasuan, gustatzen al zaizu seme-alabek zuri hika hitz egitea?

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Erantzuna ezezkoa den kasuan, nahiko al zenuke seme-alabek zuri hika hitz egitea?

- ☐ Bai (guztiek)
- ☐ Ez (inork ez)
- ☐ Semeek soilik
- ☐ Alabek soilik

Seme-alabek erabiltzen al dute hitanoa? \*

|         | Bai | Ez | Ez dakit | Ez daukat |
|---------|-----|----|----------|-----------|
| 1 Semea |     |    |          |           |
| 1 Alaba |     |    |          |           |
| 2 Semea |     |    |          |           |
| 2 Alaba |     |    |          |           |
| 3 Semea |     |    |          |           |
| 3 Alaba |     |    |          |           |

Hitanoa norekin erabiltzen dute? \*

|         | Ez du hika<br>inorekin<br>egiten | Lagun<br>neskekin | Lagun<br>mutilekin | Anaiarekin | Arrebarekin/<br>ahizparekin | Amarekin | Aitarekin | Lehengusu<br>neskekin | Lehengusu<br>mutilekin | Izebarekin | Osabarekin | Ez<br>daukat |
|---------|----------------------------------|-------------------|--------------------|------------|-----------------------------|----------|-----------|-----------------------|------------------------|------------|------------|--------------|
| 1 Semea |                                  |                   |                    |            |                             |          |           |                       |                        |            |            |              |
| 1 Alaba |                                  |                   |                    |            |                             |          |           |                       |                        |            |            |              |
| 2 Semea |                                  |                   |                    |            |                             |          |           |                       |                        |            |            |              |
| 2 Alaba |                                  |                   |                    |            |                             |          |           |                       |                        |            |            |              |
| 3 Semea |                                  |                   |                    |            |                             |          |           |                       |                        |            |            |              |
| 3 Alaba |                                  |                   |                    |            |                             |          |           |                       |                        |            |            |              |

Hitanoa erabiltzen duten kasuan, gustatzen al zaizu seme-alabek hitanoa erabiltzea?

|         | Bai | Ez | Ez daukat |
|---------|-----|----|-----------|
| 1 Semea |     |    |           |
| 1 Alaba |     |    |           |
| 2 Semea |     |    |           |
| 2 Alaba |     |    |           |
| 3 Semea |     |    |           |
| 3 Alaba |     |    |           |

Baietz erantzun duzun kasuan, zergatik?

Ezetz erantzun duzun kasuan, zergatik?

Hitanoa erabiltzen EZ duten kasuan, gustatuko al litzaizuke seme-alabek hika hitz egitea?

|         | Bai | Ez | Ez daukat |
|---------|-----|----|-----------|
| 1 Semea |     |    |           |
| 1 Alaba |     |    |           |
| 2 Semea |     |    |           |
| 2 Alaba |     |    |           |
| 3 Semea |     |    |           |
| 3 Alaba |     |    |           |

Gai honen inguruan iritziren bat eman edo ekarpenen bat egin nahi izango bazenu, gustura jasoko genuke hemen:

## 6.2.2. IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA

Generoa \*

- ☐ Emakumezkoa
- ☐ Gizonezkoa
- ☐ Besterik

LH-ko zein ziklotan egiten duzu lan? (Behar adina erantzun markatu) \*

- ☐ 1 zikloa
- ☐ 2 zikloa
- ☐ 3 zikloa
- ☐ Otro:

### IRAKASLEAK ETA HITANOA

Hitz egiten al duzu hika? \*

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Baietz erantzun baduzu, zergatik egiten duzu hika? (Behar adina aukera markatu)

- ☐ Ohituragatik
- ☐ Militantziagatik (hitanoak bizirik iraun dezan beharrezkoa delako guk hitz egitea)
- ☐ Beste pertsonarekin gertutasuna edo konfiantza daukadala adierazten duelako
- ☐ Gustatu egiten zaidalako
- ☐ Naturalki irteten zaidalako
- ☐ Otro:

Ezetz erantzun baduzu, zergatik ez duzu egiten hika? (Behar adina erantzun markatu)

- ☐ Zatarra iruditzen zaidalako
- ☐ Zakarra iruditzen zaidalako
- ☐ Ez dakidalako
- ☐ Zaharkituta dagoela iruditzen zaidalako

- ☐ Ez dudalako hika hitz egiten duen beste inor inguruan
- ☐ Besteek ez didatelako hika hitzegiten
- ☐ Arraro sentitzen naizelako
- ☐ Otro:

Hitanoa norekin erabiltzen duzu? (Behar beste aukera markatu) \*

- ☐ Ez dut inorekin egiten hika
- ☐ Ikasle neskekin
- ☐ Ikasle mutilekin
- ☐ Lagun emakumezkoekin
- ☐ Lagun gizonezkoekin
- ☐ Nebarekin/Anaiarekin
- ☐ Ahizparekin/Arrebarekin
- ☐ Lehengusuekin
- ☐ Bikotearekin
- ☐ Gurasoekin
- ☐ Koinatu/koinatekin
- ☐ Otro:

Zer baliorekin edo ezaugarriekin lotzen duzu hitanoa? (Behar adina aukera markatu) \*

- ☐ Gertutasuna, konfiantza
- ☐ Itsusia, zakarra
- ☐ Goxoa
- ☐ Zaharkitua
- ☐ Modernoa
- ☐ Arbasoena
- ☐ Euskaldunagoa
- ☐ Tradizionala
- ☐ Atsegina
- ☐ Otro:

Irakasleen artean hitz egin al duzue ikasleei hika egitearen edo ez egitearen inguruan? \*

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Erantzuna baiezkoa den kasuan, noiz hitz egin duzue?

- ☐ Testuinguru formal batean
- ☐ Irakasleen arteko bestelako elkarrizketetan
- ☐ Otro:

Erantzuna ezezkoa den kasuan, gai honi buruz gehiago hitz egin beharko litzatekeela iruditzen al zaizu?

- ☐ Bai
- ☐ Ez

## IRAKASLEAK ETA HITANOAK

Ikasleei hitz egiten al diezu hika? \*

- ☐ Bai (guztiei)
- ☐ Ez (inori ez)
- ☐ Ikasle neskei, beti
- ☐ Ikasle mutilei, beti
- ☐ Batzuetan ikasle mutilei
- ☐ Batzuetan ikasle neskei

Erantzuna bai edo batzuetan den kasuan, zergatik? (Behar adina erantzun markatu)

- ☐ Ikasleek hika ikastea nahiko nukeelako
- ☐ Polita eta atsegina delako
- ☐ Ohituragatik
- ☐ Tradizioari eusteko
- ☐ Hitanoa ez galtzeko
- ☐ Naturalki irteten zaidalako
- ☐ Otro:



Erantzuna ezezkoa den kasuan, zergatik? (Behar adina erantzun markatu)

- ☐ Zatarra eta zakarra delako haurrentzat
- ☐ Txikiegiak direlako
- ☐ Ez zaidalako gustatzen
- ☐ Ez dudalako haurrek hika ikastea nahi
- ☐ Ez zaidalako irteten ikasleei hika hitz egitea
- ☐ Lagunartekoa delako eta ez eremu formalean erabiltzekoa (irakasle-ikasle harremanean)
- ☐ Otro:

Erantzuna batzuetan den kasuan, noiz hitz egiten diezu? (Behar adina aukera markatu)

- ☐ Errieta egiterakoan
- ☐ Jolasterakoan
- ☐ Txantxetan
- ☐ Klasea ematerakoan
- ☐ Azalpenak ematerakoan
- ☐ Jolasorduko bestelako elkarriketetan
- ☐ Otro:

Ikasleek hitz egiten al dizute hika (beti edo tarteka)? \*

- ☐ Bai (guztiek)
- ☐ Ez (inork ez)
- ☐ Ikasle mutilek soilik
- ☐ Ikasle neskek soilik
- ☐ Ikasle neska batzuk
- ☐ Ikasle mutil batzuk

Erantzuna baiezkua den kasuan, gustatzen al zaizu ikasleek zuri hika hitz egitea?

|                | Bai | Ez | Ez dakit |
|----------------|-----|----|----------|
| Ikasle neskek  |     |    |          |
| Ikasle mutilek |     |    |          |

Erantzuna ezezkoa den kasuan, nahiko al zenuke ikasleek zuri hika hitz egitea?

|                | Bai | Ez | Ez dakit |
|----------------|-----|----|----------|
| Ikasle neskek  |     |    |          |
| Ikasle mutilek |     |    |          |

Ikasleek hitanoa erabiltzen al dute? \*

|                | Bai | Ez | Ez dakit |
|----------------|-----|----|----------|
| Ikasle neskek  |     |    |          |
| Ikasle mutilek |     |    |          |

Ikasleek non erabiltzen dute hitanoa? (Behar adina aukera markatu) \*

- ☐ Ez dute erabiltzen
- ☐ Ikasgelan lanak egiten ari direnean
- ☐ Ikasgelan jolasean ari direnean
- ☐ Jolas-orduan
- ☐ Ikastetxeko pasiloetan
- ☐ Otro:

Norekin hitz egiten dute hika? \*

|                   | Ez dute hika<br>inorekin egiten | Lagun<br>neskekin | Lagun<br>mutilekin | Anaiarekin | Arrebarekin/a<br>hizparekin | Irakasle<br>emakumezkoekin | Irakasle<br>gizonezkoekin | Ez dakit |
|-------------------|---------------------------------|-------------------|--------------------|------------|-----------------------------|----------------------------|---------------------------|----------|
| Ikasle<br>neskek  |                                 |                   |                    |            |                             |                            |                           |          |
| Ikasle<br>mutilek |                                 |                   |                    |            |                             |                            |                           |          |

Hitanoa erabiltzen duten kasuan, gustatzen al zaizu ikasleek hitanoa erabiltzea?

|         | Bai | Ez | Ez zait inporta |
|---------|-----|----|-----------------|
| Neskek  |     |    |                 |
| Mutilek |     |    |                 |

Baietz erantzun duzun kasuan, zergatik?

Ezetz erantzun duzun kasuan, zergatik?

Hitanoa erabiltzen EZ duten kasuan, gustatuko al litzaizuke ikasleek hika hitz egitea?

|         | Bai | Ez | Ez zait inporta |
|---------|-----|----|-----------------|
| Neskek  |     |    |                 |
| Mutilek |     |    |                 |

Gai honen inguruan iritziren bat eman edo ekarpenen bat egin nahi izango bazenu, gustura jasoko genuke hemen: